



uk

44. zenbakia / 2003 ekainak 22

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Txorimalo elektrikoa. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Patxi Xabier Fernandez. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, A. M.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Areeta.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Getxoarte 03. Asier Mentxaka.
- 26. BERBETAN. Alvarez Solis. Unai Brea.
- 28. ERREPORTAJEA. Bazterretako auzoak. U. B.

KULTURA ETA AISIA

- 32. FOTOGRAFIA. Antonio Lópezen naturari buruzko argazkiak.
- 36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta filmen izenburuen itzulpenak.
- 37. MUSIKA. Pío Lindegaard-en altxorra.
- 38. IRAKURGAIAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Ibon Zubiaur.
- 39. ELKARRIZKETA. Iñaki Saitua
- 40. NATURA. Ipurtatsa eta uraren kalitatea.
- 41. MUGIDU. Urdai bai eta raftinga.
- 42. OSASUNA. Ahoko osasuna eta istripuen ondorio psikologikoak.
- 43. JANTZI. Abarketak, udarako oinetakoak.
- 44. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
- 45. KOMUNIKAZIOA. Guillermo Marconi, Lauretan Babel eta Ostiela.

EUSKARAZ

- 46. URIBERTSOAN BARRENA. Andere Arriolabengoari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
- 48. AKABUKO PUNTE. Jose Luis Iturregizaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoen "Gure berbakere" zutabea.
- 50. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

- 52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan pintxo bat? Adibidez, Algortako Kankamo tabernan.
- 54. HOROSKOPOA.
- 55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 57. FLASH BACK. Leioaztarrak Algortan, 1976.
- 58. AITORMENAK. Txan magoa. Eunáte Serrano.



26 Antonio Alvarez-Solis

Berbetan

Bizitza osoan kazetaritzan jardun du. Euskal Herriarekin erakutsi duen jarrerak Espainiako komunikabeetako ateak itxi dizkio.



58 Txan Magoa



46 Andere Arriolabengoa




10 Getxo Rugby Taldea



28 Bazterretako auzoak



24 Getxoarte 2003



AZALA: Antonio López

Algortako Etorbidea 104 zbk
48990 Algorta - GETXO
Tlf: 94 460 66 71

Udan ere euskarari heldu!

euskara

Udako ikastaro trinkoak
(5 ordukoak)

Cursos intensivos de verano

Ven y ap ntate!

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

HABER diruz lagunduta

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunate Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Pabli Díaz, Gonzalo Inbarnegaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez, Mitxelko Uranga
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEa



GETXOKO UDALA

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Erandioiko Udala

Erandioiko Udala

Aldizkari honek Erandioiko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Ongi etorri, Berria

Lau hilabete dira Euskaldunon Egunkaria itxi zutela, eta dagoeneko kalean daukagu haren hutsunea beteko duen Berria. Tartean, behin-behineko baina duintasunez gainezkako Egunero-ri esker, euskaldunok geure hizkuntzan prentsa irakurtzeko eskubidea gauzatu ahal izan dugu, baten bati gustatzen ez zaion arren. Orain, euskarazko informazioak Egunkariak irekitako kalitatearen bideari eutsiko dio, Martxelo Otamendik aldizkari honetan bertan duela hilabete esan bezala, Egunkariak zeuzkan ezaugarri gehienak gordez.

Neurri batean, Egunkaria sortzeko egin zen bidea egin behar izan da berriro. Asko dago aurreratuta: hamahiru urteko eskarmentua, trebatutako profesional talde bat, irakurleen atxikimendua... Hala ere, etxe berri bat eraikitzea ez da txantxetako kontua. Eta beti bezala, dirua behar da horretarako. Akzio-salmentaren zein bitarteko berritzaileagoen bidez (ikus UK honetako 11. orrialdea), adreiluak apurka-apurka batuz doaz Berriaren sortzaileak. Guk ere, euskal (eta euskarazko) prentsa garen heinean, dei egiten dizuegu lan eder horretan parte hartzera. Seguru gaude-eta egunkari berriak ordainean emango duena bikaina izango dela: ea "ixten" dioten... eta egunkaria bera ez duten ixten! 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>

Egunero



MUGARRA KALEA, GETXO 2003

Txorimalo elektrikoa / Hona hemen gauzarik traketsenari ere etekin ederra atera dakiokeela erakusten duen adibide bat. Berez elektrizitatearen kablei eusteko baino balio ez duen zutoinak (“luz elektrikan palu”, Ondarroako euskaraz), naturaren laguntza txiki batez, txoriak lorategiko geranioen hazietatik uxatzeko balio dezake. Ez dugu jakiterik eduki zutoina era honetan “janzteko” giza laguntzarik egon den ala ez, baina, edozelan, emaitza ikusgarria da benetan. / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Izenak

Irratia entzuten ari nintzela Skunk taldearen kanta bat jarri dute. Gutxi gorabehera zera zioen, automobil bat ikusi orduko badakigula zein markakoa eta zein modelokoa den, bai izenik arraroena izanda ere, baina txori, zuhaitz eta enparauen izenik ez dugula ezagutzen.

Egia esan, asko egiten dugu berba ekologi­az, ingurumenaz, baina gaur egun gehienok kalekumeak gara: asfaltoak, autoek eta zementuak osatzen dute nagusiki gure ingurua, gure mundua. Txoriak, zuhaitzak eta halakoak liburu aspergarri batzuetako kontuak baino ez dira, gure bizitzarekin zerikusi gutxi daukatenak: denak dira “txoriak”, denak “landareak”, denak “zuhaitzak”, gure munduaren parte ez diren gauza guztiekin gertatzen zaigun bezala, denak etorkinak, denak beltzak, denak ekuadortarrak.

Hurbil gaitezen naturara, hurbil gaitezen pertsonengana, asfaltoaren, autoaren, porlanaren gainetik kardantxiloa, birigarroa, eskilasoa, Amina, Abdul, Wasila badirela jakiteko, ezagutzeko, maitatzeko. 4

Iritzia

Ez da giro futbolaren munduan. Telebista kontratuak direla-eta, Espainiako liga profesionaleko talde askok datorren denboraldian ez jokatzearekin mehatxatu dute. Gatazka honen harira, iritzia eman digu Athletic Club-eko prentsa burua den Patxi Xabier Fernandezek.

Telebisten eskubideak eta futbolaren krisialdia



«Diruaren iturriak [fubolean] ia izen bakarra dauka: telebista»

Zatiketa heldu ei da espainiar Futboleko Liga Profesionalera (LFP). Dirudienez, telebisten eskubideen kontratu berriaren negoziazioak eragin du iskanbila, baina nire ustez, hori baino askoz sakonagoak dira arrazoiak, eta ikusteke dago noraino iritsiko diren ondorioak, batez ere Europako Liga askotan zer-nolako arazoak sortu diren ikusita: zenbat talde desagertu diren eta zenbat telebistak porrot egin duten. Futbolak dirua behar du eta diruaren iturriak izen ia bakarra du: telebista. Klub askok, kirol-elkarte anonimoek hobeki esanda, ezin izango dute datorren denboraldia behar legez prestatu diru-sarrerak ziurtatu ezean, aurreko urteotan kontratu osoko dirutza xahutu dutela kontuan hartuta. Eta egoera zertxobait gehiago nahasteko, posiblea den heinean, telebista operadore nagusiek (Canal Satélite Digital eta Vía Digital hain zuzen ere) bat egin dute, eta ondorioz, negozi­aziorako aukerak gutxitu. Honela, azken batean, telebisten eskuetan dago negozi­azioa. Testuinguru honetan koka dezakegu klub­en arteko zatiketa. Alde batetik G-12koek bakoitzaren garrantzia eta entzulegoaren arabera gura dute negoziatu eta dagoeneko batzuek egin dute bere hitzarmen propioa. Bestalde, Bigarren Mailako talde guztien eta Lehen Mailako batzuen ustez (G-30), dirua beste era batera banatzea litzateke egokiena, orain arte jasotakoa behintzat aurrerantzean ere jaso ahal izateko. Horrela daude gauzak, eta G-30koek “greba” iragarri dute, hurrengo Espainiako Ligaren hasiera geldiarazteko.

Negozi­azioei dagokienez, gauzak konpon daitezke, ziurrenik, baina aurrerantzean konponbide sendoak beharko ditu futbolaren egiturak, haustura gerta ez dadin. Aitzitik, ia denak bat datoz kinielen diruaren portzentajea handitzea beharrezkoa dela esateko orduan... Betiko lekura itzultzeko: dirua behar du futbolak, baina krisialdian dagoenez, zaila izango du epe motzean guztiak aseko dituen konponbidea aurkitzea. 4

Patxi Xabier Fernandez (Athletic Club-eko prentsa burua)



photoshop > Ana Obregón Sopelan oporretan



Argazkia eta manipulazioa: Asier Menthaka

Iraganez doa denbora* beti / LEIOAKO TREN GELTOKIA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



laz metro karratuko 922 litro euri jausi zen eskualdean

datua > zenbat euri egiten du Uribe Kostan

Uda hasi den honetan, bustitzeko moduko kontuak dakartzagu. Euriaren gainean Euskadiko Meteorologi Zentroak eman dizkigun zenbait datu eskainiko dizkizuegu jarraian, baina alde zuzenetik argi utzi gura dugu ez dugula adur txarrik ekarri nahi, inondik ere ez! Tira, iaz, Punta Galeako behatokiak 922 litro jaso zituen guztira; hilabeterik eurtsuena abendua izan zen (155 litro) eta euri gutxien egin zuen hilabetea, berriz, martxoa (23 litro). Azken hamar urteotako datuak ere badauzkagu: metro karratuko 969 litro euri jausi da eskualdean, batezbeste, hamarkada honetan; 1996 izan zen urterik eurtsuena (1.209 litro) eta 2001, berriz, lehorrena (799 litro). Bestalde, azaroa izan ohi da gurean euri gehien dakarren hilabetea. ^m

Azken bost urteetan (l/m²)

• 1998	1.005,6
• 1999	1.016,3
• 2000	977,5
• 2001	799,8
• 2002	922,4

**Aurtongo datuei dagokielan, Punta Galeako behatokiak 128, 77, 31 eta 46 litro jaso ditu urtarilean, otsailan, martxoan eta apirilean, hurrenez hurren. Beraz, 282 litro euri jausi da 2003ko lehen lauhilekoan.*



Argazkian, Barrikako zahar-etxea

gauzak > velkroa®



1951. urtean, George de Mestral ingeniari eta asmatzaile suitzarrak velcro® marka patentatu zuen. Asmakizuna lehenago bururatu zitzaion, jakina, baina ez dago argi noiz. Batzuek 1942 aipatzen dute, besteek 1948. Urtea gora-behera, De Mestrali asko gustatzen zitzaion mendira joatea, ehizan batez ere. Behin, jantzietan itsatsita geratzen zitzaizkion lapa-belarrez aspertu egin zen nonbait. Mikroskopioan aztertu zituen hain sendo itsasten ziren belar haiek eta, euren mekanismoa zein zen ikusi eta gero, antzeko zeozer sortzea erabaki zuen. Holan sortu zen gaur egun hainbeste erabilera daukan velcro®. Kleenex, nylon edota zelofanagaz gertatzen den antzera, markak izena eman dio produktuari, baina Velcro S.A. konpainiak, hori saihestu guran, zorrotz zaintzen du izenaren ondoan erregistratutako markaren ikurra agertzea beti, testu honetan garbi geratu denez. ^m
Iturria: Elhuyar

bazen > txiroentzako egoitza Barrikan

Barrikan, Plentziarako bidetik bertatik, 1914an Atxutegi baserriaren lurretan eraiki zuten ospitalea ikus daiteke. Erraz ezagutzen da, goialdean duen kupula handiari esker. Concepción Elorduy andreak sortu zuen egoitza, izan ere, 1900 urteko uztailaren 10ean sinatutako testamentuan, bere ondasun guztiak Barrikan ospitale bat eraikitzeko eskaini zituen. Txiroentzako ospitalea izan behar zuen, eta horrelaxe egin zuten, behartsuei osasun arreta eta diru-laguntza eman, bai eta ostalua eta janaria ere. Horrez gain, gazteek hezkuntza ere jasotzen zuten. Laguntza hau guztia jasotzeko, baldintza bi bete behar zituzten: alde batetik, katolikoak izatea, eta bestetik, Barrika, Sopela, Gorriz, Urduliz edo Plentziakoak izatea edo bertan gutxienez zazpi urtez bizi izatea. Gaur egun, dena dela, Elorduy egoitza zahar-etxea da soilik. ^m

begizorrotz > espaloirik laburrena?



Oinezkoak beste aldera doaz. Zer erremedio!

Getxoko Maidagan kalean dagoen hau izango da Uribe Kostako espaloirik laburrena? Apustu egingo genuke baietz. Egia esan, ia denborarik ere ez du ematen bertan egoteko. Hona gure itauna: zertarako demontre ipini zuten hor? Erantzuna dakienak, dei egin diezagula mesedez. ^m

kale izendegia > Urdulizko Aita Gotzon



Urdulizera bagoaz Aita Gotzon izeneko kalea topa dezakegu. Abadea izateaz gain, Gotzon Garitaonandia Gorordo (hau zen-eta bere izen osoa) idazlea ere bazen. Urduliztar gehienentzat *Angelito* zena Dobaran auzoko Zabale baserrian jaio zen 1936an, eta 34 urte zituela hil zen Bilbon. Makinatxo bat artiku-lu idatzi zituen Aita Gotzonek, batez ere 60. hamarkadaren bukaeran; artikuluo *Anaitasuna*, *Agur* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan, besteak beste, argitaratu ziren. Hala ere, bere libururik garrantzitsuen *Balendin Uriona* dugu: 1967an idatzi zuen, eta istri-puz hil zen txirrindulari gazte baten bizitza azaltzen du bertan. Itzulpenak ere egin zituen; esaterako, Paulo VI Aita Santuaren *Errien Aurrerakuntza* obrarena. ^m
Irudian, Aita Gotzon Garitaonandia



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350_{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Berriro gailurrean

Denboraldi bat Lehen Mailan egon ostean, **Getxo Rugby Taldea** **Ohorezko Mailara** igo da atzera, ia partida guztiak irabazita. Hori dela eta, taldearen gorabeheraz berba egin dugu **Díaz Paternain** entrenatzaileagaz

Historia oparoaren eta hainbat tituluren jabe da Getxo Rugby Taldea, baina harrobi hutsaz lehiatzea gero eta zailagoa da kirolaren munduan, eta getxoztarrei ere, maila galtzearen zapore garratza dastatzea egokitu zitzaaien orain denboraldi bi. Baina arin itzuli dira ostera Ohorezko Mailara, partida gehienak irabazita gainera.

Javier Díaz Paternain esatea Getxo Rugby Taldea esatea da. 25 urte baino gehiago daroaz klubean (42 dauzka), lehenengo jokalaria, eta gero entrenatzaile. Inoiz, lan biak ere egin izan ditu aldi berean; azken denboraldi bietan, ostera, entrenatu baino ez.

“Jabixin” abokatua da ogibidez, eta berak ere, taldeko gainerakoek bezala, lanaren eta errugbiaren artean banatu behar du denbora. Era horretan ez da erraza aurrera egitea, errugbian profesionaltasuna gero eta zabalduago dagoela kontuan edu-



Ohorezko Mailara itzultzea lortu duen taldea. Behean, Javier Díaz Paternain

kita. “Guk, dirurik ez daukagunez, harrobiko jokalariekin jokatu behar dugu. Baina ligak eta kopak irabazi genituenean ere hala ibiltzen ginen”.

«Harrobiko jokalariekin jokatu behar dugu»

Bestela ematen badu ere, merkeagoa da Ohorezko Mailan jardutea Lehen Mailan baino. “Bidaia garestiagoak dira Lehen Mailan, hainbat bider joan behar delako Andaluziara eta abar... Ohorezkoan, berriz, behin baino ez, eta gainerakoak hurbilago dira”, azaldu digu Díaz Paternainek.

Dena dela, diru arazo berriak sortu zaiz-

kio taldeari aurton, bigarren taldea ere igo egin delako “eta horrek, federazioaren kontuak direla eta, hirugarren taldea ere edukitera behartzen gaituelako”, entrenatzaileak dioskunez. m



Historia apur bat

- Getxo Rugby taldea **1975**ean sortu zuen ikasle talde batek.
- **550** bazkide inguru dauzka gaur egun.
- **Irabazitako titulurik garrantzitsuenak:** Espainiako Ohorezko Mailako liga (1992-93). Espainiako Errege Kopa (1989-90, 1990-91, 1991-92, 1996-97).

Bolueko basoa

Bertoko zuhaitzez jositako **berdegunea**



500 zuhaitz inguru landatu dituzte Bolueko hezegunean

Getxoko Udalak Bolueko hezegunearen eremu bat atondu eta bertoko espeziez hornitutako baso berria sortu du bertan, lan horretan 24.000 euro erabilita. 2.711 metro karratuko gune horretan Bolueri bestelako itxura emango dioten 500en bat zuhaitz eta zuhaixkak landatu dituzte: haritzak, pagoak, haltzak, urkiak, gurbitzak, gaztainondoak, pistatxoak, elorri beltzak, astigarrak, hurritzak, intsusak edota arrosa-landareak, besteak beste. Horretaz gain, zenbait jesarleku paratuko dituzte laster, pasieran dabiltzate- nek atsedean har tu ahal izan dezaten.

Zuhaitz ugariz jantziriko Bolueko lur-sailan *La Caseta de Bombas* izenpean ezaguna den etxola ere aurki daiteke; orain ingurumen-heziketarako gela bihurtu da, baina garai batean Bolueko urtegiaren urak ponpatzen zituzten makinak zeuden bertan.

Han aditu talde batek hezegunearen ekosistema aztertzen eta bertoko dortokak (“lepradunak”) babesten ditu. Zentro hori ez dago jendearentzako irekita; hala ere, nahi duten ikastetxeek bisita gidatuak egin ditzakete, aldeztatik hitzordua eskatzen badute. m

3.000 EURO BILDU DITUZTE SAN NIKOLAS IKASTOLAN EGUNKARI BERRIAREN ALDE

San Nikolas ikastolan ekintza bitxia egin zuten ikasturte akabuko jaietan, laster kaleratuko den Berria euskarazko egunkariaren alde dirua biltzeko. Diru-paper baten truke, norberaren erretratua egin eta panel batean ipintzen zuten diru biltzeko ekimen honetan. Beheko irudian animatu ziren batzuen argazkiak ikus ditzakezue. Erretratuak kamera digitalez egin eta behingoan inprimatzen zituzten, panelean ezartzeko. Guztira, 2.110 euro batu zituzten era honetan; 3.000 eurora artekoa material eta akzio-salmentaren bidez lortu zuten.

Jaialdian egindako erretratueko batzuk



**KURKUDI
LIBURUDENDA**

**Euskarazko
irakurgeta**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

BEROGAILU ETA ITUR -

HIRURAK

Sarrikobaso 15

ETXETOKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -

Lacofris S.L.

SERVITEC

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
¥ 3 HILABETEKOKO GARAN-
TIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITU-
A

& 94 430 52 00

Kasune, 18 • ALGORTA

amesti 7^{SL}

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Skater jaia

Munduko txapelduna etorriko da Arrigunagan **San Juan** bezperan egingo den jaialdira

Ohitura denez, Getxo eta ingurueta-ko skater-ek jai handia egingo dute San Juan bezperan (ekainak 23, astelehena) Arrigunagako skate park-en. Txus Domínguez, “*Algortako betidaniko skater bat*”, da antolatzaileetako bat. Beraren ahotik jaso ditugu, hain zuzen, jaiaeren gaineko argibide batzuk: “*Egurdiko hamabietatik gaurdiko hamabietara inaungo du jaia, eta denetarik edukiko du: parrillada, kontzertuak, pantalla erraldoia skate irudiekin...*”. Eta skate-keta ere barra-barra, jakina. Aurtun, gainera, munduko txapelduna ekartzea lortu dute. “*Oso giro ona sortzen da*”, diosku Domínguezek, “*ez delako lehiaketarik egiten. Jendea lasaia ibiltzen da, gustura*”. m

Jaialdiaren kartel iragarlea



PORTU ZAHARREKO JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETA

Portu Zaharreko jaietako kartela zein izango den erabakitzeko lehiaketak hamargarren edizioa beteko du aurtun. Lanak ekainaren 27ra arte eman ahal izango dira Algortako Kultur Etxean, eta “Portu Zaharreko Jaiak 2003. Abuztuak 8-12” leloa eduki behar dute derrigorrez. Irabazleen izenak uztailaren 19an emango dira jakitera.

Informazio gehiago: 94 460 94 46

Nuria Ruiz de Hilla >

Getxo Enpresa eta Merkataritzaren zuzendari gerentea

Hirugarren sektoreari begira



Argazkian, Nuria Ruiz de Hilla

Nuria Ruiz de Hilla deustuarra 2002ko irailaz geroztik da Getxo Enpresa eta Merkataritza (G.E.M.) elkarteko gestio-arloaren ardura-dun nagusi. Epe laburrean gauza-tu nahi dituzten proiektuak aurkeztu ditu elkarrietzeta honetan.

—Aurtun 25 urte bete dituzue.

—Zehatzago esateko, 25 urte igaro dira Areetan lehen elkarte sortu zenetik; ondoren Algortakoak eta Erromokoak agertu ziren. Horiak guztiek batzeko erabakia hartu zutenean, *Comercios Unidos de Getxo* elkarte sortu zen, Getxo Enpresa eta Merkataritzaren aurrekoa, hain zuzen.

—Zer dela eta aldatu zenuten elkartearen izena?

—Aldatu baino gehiago, izena “zabaldur” egin genuen; lehen Getxoko merkatarien elkarte zen soilik, eta orain, berriz, merkatarien, profesionalen, eta zerbitzueta eta ostalaritzan dihardutenen elkarte da. Izen berriarekin hirugarren sektorean dauden jarduera guztiak bildu ditugu.

—Iaz 60 enpresa sartu ziren GEMen. Zenbat elkartekide dituzue egun?

—450 dauzkagu; mila pertsona baino gehiagori lanpostu zuzena ematen diete enpresa hauek. Iaz 15.550 milioi pezeta fakturatu zituzten guztira.

—Webgune bat sortu nahi duzue, ezta?

—Bai. Orain beharren diagnosa egiten ari gara, egitasmo horren tamaina neurtzeko; kontuan hartu behar da neurri askoko enpresak dauzkagula eta gainera sektore ezberdinekoak direla. Diagnosi horren emaitza baiezkoa bada, webgunea urtearen amaieran edo hurrengoaren hasieran ipiniko genuke. Horren bidez, merkataritza elektronikoa eta *on line* heziketa egitea pentsatu dugu.

—Azaldu zer izango den Ondasunak eta Zerbitzuak Erosteko Zentrala.

—Elkartearen proiekturik kutunena, gure izatearen arrazoia. Mota guztietako enpresen ohiko gastuak (telefonoa, publizitatea, aseguruak, bulegoko tresneria, etab.) zeintzuk diren zehaztuko duen ikerketa bat egingo dugu, estrategiak erabakitzeko, eta elkartekideentzako onuragarriak izango diren baldintzak hornitzaileekin negoziatu ahal izateko.


«G.E.M. elkarteko kideek 15.550 milioi pezeta fakturatu zituzten iaz»

—GEMen egoteak zelako onura dakarkio enpresa bati?

—Alde batetik, erakundeen aurrean ordezkaturata dago, eta bestetik, bere sektorearentzako interesgarriak diren gaien berri ematen diogu. Horretaz gain, garrantzi handiko heziketa-plana daukagu; elkartearen dauden enpresetako ugazabei zein langileei 60 ikastarotik gora eskaintzen dizkiegu urtero, doakoak, eta gero eta espezializatuagoak. m

IKASTARO TRINKOAK

cursos intensivos



UZTAILA-IRAILA

JULIO-SEPTIEMBRE

todos los niveles

LOPE DE VEGA 12/ TFNOAK: 944646299 - 944646502/ ROMO

Jai gune ugari

Aniztasuna eskainiko dute aurtengo Leioako **San Juan** jaiek



Irudiok iazko jaietakoak dituzue

«Aurten Txomin Arestiko karpa indartu gura izan da»

“Leioan ez dago jai-batzorderik, ber-baren esangura estuenenan behintzat”. Hala dio Gotzon Bilbaok, duela 15en bat urte jaien antolakuntzan diharduen Udaletxeko langileak. Dena dela, Udaletxeak antolatutako ekitaldiei koadrillek eta txosnek prestatutakoak gehitzen zaizkio-la argitu digu Bilbaok. *“Horiek ere egitarauan sartzen ditugu”.*

Koadrilla txapelketa, izan ere, Leioa-

ko Sanjuanetako ikurretako bat da. Due-la 15 urte egiten da, *“gutxienez”*, eta aurtengo ediziorako 20 koadrilla inguru daude izena emanda. Txosnetan, berriz, programazio oparoa eskaintzen da; aurt-en 8 izango dira eta, ohi bezala, Mer-cedarias ikastetxean egongo dira.

Jai gune bat baino gehiago dago eta, horietan, ekitaldi desberdinak ematen dira, guztien gurariak asetzeko asmoz.

Bilbaok dioenez, *“aurten Txomin Aresti ikastetxeko karpa indartu gura dugu. Jende helduarentzako giro lasaia topatu ahal da hor”.* Gainera, eguneko programazioa es-kasa zelakoan, Elizaurreko Aureskua de-ritzan ekitaldiagaz garrantzi handiagoa eman gura diote. Hirugarren aldiz egin-go dute aurten eta Iparraldeko dantzari eta musikariak ekarriko dituzte, besteak beste, ekitaldira. m

Egitaraua

EKAINAK 20 BARIKUA

- ▶ Txupinazoa eta pregoia. Udaletxean. 20:00
- ▶ Koadrilla jaitsiera. Elexaldetik abiatuta. 20:15
- ▶ Trikitixa emanaldia. Itxartu taldeagaz. 20:45
- ▶ Antzerkia. *Mi abuelita me desnuda*, Lila gorriak taldearen eskutik. 21:00
- ▶ Koadrilla arteko play-backa. 7 Magnifikoen plazan. 22:30
- ▶ Sonora & DJ Embe. Ikea Barrin. 23:00
- ▶ El Peliren ikuskizuna. Txomin Arestiko karpan. 23:30
- ▶ Erromeria Ene Bada taldeagaz. Txosnetan. 00:30
- ▶ Erromeria Triki Ta Ke taldeagaz. Ikea Barrin. 00:30
- ▶ Erromeria Jake Mate taldeagaz. Txomin Arestiko karpan. 00:30

EKAINAK 21 ZAPATUA

- ▶ V. “Leioako Udala” arrantza txapelketa. Lertutxe aintziran. 8:30
- ▶ Koadrilla arteko herri kiroletako olinpiadak. Bulebarrean. 11:30
- ▶ Esku pilota eskolaren txapelketako finalak. Pilotalekuan. 16:30
- ▶ Camp dantzak. Pinuetan. 19:00
- ▶ Bihar Guinól taldearen ikuskizuna. Euskal Etxeen plazan. 20:30
- ▶ Basakiren emanaldia. Txosnetan. 23:00
- ▶ Yunke magoaren ikuskizuna. Txomin Arestiko karpan. 23:30
- ▶ Erromeria Oropendola taldeagaz. Ikea Barrin. 00:00
- ▶ Erromeria Galea taldeagaz. Txomin Arestiko karpan. 00:30
- ▶ Kontzertua Ari taldeagaz. Txosnetan. 01:00

EKAINAK 22 DOMEKA

- ▶ Meza. San Joan Bautista elizan. 11:00
- ▶ Koadrilla arteko sokatira txapelketako finalak. Sakoneta kiroldegian. 11:00
- ▶ Elizaurreko aureskua. Udaletxean. 12:00. Bazkaria 15:00etan Txomin Arestiko karpan.
- ▶ Los Cinco Bilbainos. Txomin Arestiko karpan. 17:00
- ▶ Europako tiragoma txapelketa. Bulebarrean. 17:30
- ▶ Euskal dantza. Bulebarrean. 20:30
- ▶ Kontzertua SKT taldeagaz. Txosnetan. 23:00
- ▶ Erromeria Lisker taldeagaz. Ikea Barrin. 23:30
- ▶ Kontzertua Skalariak taldeagaz. Txosnetan. 00:30

EKAINAK 23 ASTELEHENA

- ▶ Azeri harrapaketa (umeak). 11:30
- ▶ Azeri harrapaketa (helduak). 17:00
- ▶ San Juan Gaua ikuskizuna. 22:30
- ▶ Erromeria Trikitixa Kontrairo taldeagaz. Txosnetan. 23:00
- ▶ Su artifizialak. Kanposantuko parketik. 23:30
- ▶ Txokolate-jana Bulebarrean. 00:00
- ▶ Erromeria Drindots taldeagaz. Ikea Barrin. 00:00

EKAINAK 24 MARTITZENA, SAN JUAN EGUNA

- ▶ Meza nagusia eta aureskua. 12:00
- ▶ Koadrilla arteko jantzi merke lehiaketa. Ikea Barrin. 19:00
- ▶ Jaien amaiera. Udaletxean. 22:00

* OHARRA: Espazio arazoak direla eta, ez ditugu ekitaldi guztiak sartu hemen.

uRondo
Estankoa

Sabino Arana 67
T: 94 464 92 33 - LEIOA

PLATER-TIRO
ETA EHIZARAKO
KIROL-ELKARTEA



TABERNA-KARTUTXO DENDA

Posta kutxa 33 LEIOA
Tel: 94 633 81 59



Zure Irlandar txokoa!!

Sabino Arana 78
LEIOA

ERROTULOAK



Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

KURKUDI HERRIKO TABERNA

Jaietan ere
presoak
etxera!



Bokata
goxo-goxoak
eta beroak

Sabino Arana, 82 behea LEIOA

Jai zoriontsuak
leioztar guztioi!!!

UK aldizkaria

Txutxi González Fano >

Landare hostoekin paisajeak irudikatzen zaletutako erandioztarra



Argazkian, Txutxi González Fano

Txutxi mendigoizale amorratua da, eta buruan gordeta ditu Euskal Herriko paraje askotako irudiak. Orain irudi horiek, paisaje horiek, hosto lehorrez irudikatzeari ekin dio. Orduak eta orduak ematen ditu, ia konturatu barik, buruan duen irudi jakin bat kartulinara ekartzeko. Pastel pinturak ere erabiltzen ditu zeru aldeari berak nahi duen kolorea emateko. Horrela, 29 lan osatu ditu azken urtebetean, eta guztiak erakusgai izan ditu Udaletxeko erakusketa aretoan, ekainaren 6tik 10era bitartean.

Txutxik, Parkinson gaixotasuna du ("*lagun ingelesarekin*") bizi dela esaten du berak) eta ezintasun iraunkor osoa duenez, badu astirik bere zaletasunean murgiltzeko.

Parkinsonari aurre egiteko terapia lagungarria dira eskulanak. Lehenago, maskorrekin itsasontziak eta bestelako irudiak egiten zituen, baina duela urtebete bere alabarentzat hostoz osatutako irudi bat egiten hasi eta horretan murgildu da.

Lehenengo erakusketa

Bere lehenengo erakusketa da, eta batere asmo handinahirik ez duela adierazi digu, baina erakusketara etorritako lagunak ere txundituta utzi ditu. Hori bai, etxean irudi gehiegi pilatzen doazkiola eta baten batzuk saltzen baditu beste batzuk egiteko aukera gehiago izango duelakotan, nahikoa prezio onean jarri ditu salgai: 70 eta 105 euro artean, markoaren kostua berresku-

ratzeko batez ere.

Bera autodidakta dela esan digu. Hor-
hemen zerbait ikusia zuela eta bera ere beste batzuek egiten zutena egiteko gai izan zite-
keelakoan hasi zen. "*Pazientzia izanez gero edonork egin ditzake gauza politak, eta alde horretatik jendea animatu egin nahi nuke*".

Hostoak bildu, liburu mardulen azpian eta egunkarietako orri artean lehortu, eta lortu nahi duen sentsazio bakoitzerako apro-
posena aukeratu. Era guztietako hostoak erabiltzen ditu, eta mendi ertzak irudikatzeko asunen orriak bereziki erabilgarriak dire-
la dio. "*Ez zait hostoak margotzea gustatzen. Nire konposizioetarako behar ditudan kolore-
ak naturan bertan aurkitzen ditut*".

«Pazientzia izanez gero edonork egin ditzake gauza politak»

Algekin egindako irudi batzuk ere badi-
ra erakutsitakoen artean, baina lehortzen zailagoak direnez, eta gainera sikatzean etxe-
an sekulako kiratsa uzten dutenez, ez du bide horretatik oso aurrera jo.

Datorren udazkenerako beste erakuske-
ta bat egingo du Bilbon, Parkinsondunen elkarte-
an.

Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

ALTZAGA IKASTOLAREN EGUNA

Urtero bezala, ekainaren lehenengo larunbate-
an, hilak 7 zituenean, Ikastola Eguna ospatu
zuten Altzaga Ikastolan. Goizean goiz hasi
ziren hainbat partida eta kirol ekitaldirekin: fut-
bolean, saskibaloian eta pilotan aritu ziren
ikastolako taldeak. Eguerdiko ekitaldian, urte-
an zehar zirkul lantegian aritu diren gazteek
beren abilezia berriak erakusteko parada izan
zuten. Gero, dantza modernoko koreografia
batzuk ere egin zituzten hainbat neska taldek.
Eta ekitaldi hau bukatzeko, kirolean aritu diren
200dik gorako ikasleei oroigarriak banandu
zitzaizkien. Bestetik, goiz osoan zabalik egon
ziren Egunkariaren aldeko mahaia eta
Nafarroa Oinez-eko materiala saltzeko denda,
ikastolako trikitilariak lagun zituztela.

Arratsaldean, neska-mutikoez gozatzeko
aukera izan zuten puzgarriekin, txotxongilo-
ekin... eta batez ere, ur gerra mundialarekin!
Iluntzera helduta, erromeriarekin eman zitzaion
amaiera aurtengo Ikastola Egunari.

Giro ederra egon zen ikastola egunean



EGUNKARI BERRIAREN AKZIOAK SALGAI

Erandioko batzordeak aurrera jarraitzen du
Berria egunkariaren akzioak saltzeko kanpai-
an murgilduta. Dagoeneko ia bost mila
euroren akzioak saldu dituzte. Egunkari
berriaren eronkak gehiago behar duela-eta
batzordetik dei egiten diete Erandioko eus-
kaltzale guztiei, orain arte aukerarik izan ez
badute, batzordekideekin harremanean jart-
zeko ondoko telefono hauetan:
653 738 537 eta 653 710 695

Azoka jendetsua Altzagan

Hainbat urtez ospatu barik egon ondoren, “Bizkaiko jangaiak” azoka berriro egin zen



Berrogeita hamar postu inguru egon ziren azokan

Goizeko bederatzieta zabaldu ziren azoka-
ren postuak eta lehenengo orduak izan ziren
onenak produktuak lasaitasunez ikusi eta
dastatzeko. Hamabi eta erdietatik aurrera,
ostera, jendea ugaritu egin zen eta postu guz-
tietara hurbiltzea zail bihurtu. Bizkaiko ortu
produktuez gainera hainbat ganadu mota
izan genuen ikusgai, Erandio eta inguruko
baserrietakoak gehienak, besteak beste
Olabarrieta eta Bilbao familienak. Txerri,
ahuntz, ardi, idi, asto, zaldi, behor eta gai-
nontzeko abereei begiratzeko moduak argi
erakutsi zuen erandioztar gehienak “kaleku-

me” garela. Umeek trostan ibiltzeko aukera
izan zuten eta Herri Kirolen erakusketa ere
izan genuen. Helduenok, berriz, salmenta
postuetara hurbilduta baino gehiago txako-
lina eta txerriak dastatzen eman genuen
igandeko goiza. Berrogeita hamar postu
inguru egon ziren azokan, gehienak bizkai-
tarrak, baina egon bazeuden urrunagokoak
ere: Altsasu eta Irisarrikoak (nafarrak biak).
Izan ere, ortuari eta ganaduekin batera, ikus-
gai eta salgai izan genituen txerrikiak, okin
lanak, eskulanak eta Erandioko argazki
zaharrak ere. m

erakusketak
antzerkia
dj.ak

ALGORTA

**BAR ESPUELA
ITURRIBIDE**

**XOSTEGUN KULTURALAK
XASTEBURUTAN
MARTXOIA 08
ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA**

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

01 SOPELNETs.l.

Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94 676

[sopela]jaietan]

Hemen daude Sanpedroak

Udaletxe aurrean **eszenatoki bi** egongo dira



Jaietan, Gari, Gatibu eta Deabru Beltzak taldeek joko dute

Duela hiru urte Sopelako Udaletxeak kultur ekitaldiak prestatzeko kontratatuko enpresaren egitekoetako bat jaien antolakuntza da, eta hortaz, enpresa horretako langile den Mirian Arriagak egin digu berba 2003ko Sanpedroez: *“Udal-bando bat kaleratzen dugu urtarila aldean, jai-batzordean parte hartu gura dutenei deialdia eginez”*.

Sopelako jai gune nagusia Udaletxeko plaza da. Horregatik, aurreten lehen aldiz, eszenatoki bi paratuko dituzte bertan, gunea indartu gurean edo. Gainerakoan, Zipiriñe eskolak ere garrantzia edukiko du Sanpedro hauetan, han ipiniko dira-eta umeak gustura ibiltzeko moduko hainbat gauza. Baina ez hori bakarrik.

“Zipiriñen umeentzako jolas-parkea egongo da jaietan zehar”, dio Arriagak, *“Baina horrez gain gaztetxoentzako diteketa ere han egongo da, eta baita helduagoentzako camp dantzaldi bat ere, ekainaren 28an”*.

Egitarauko beste ekitaldiei dagokienez, alde batetik Gari eta Gatiburen kontzertuak eta bestetik kale antzerkiak edukiko duen presentzia nabarmendu behar

dira. *“Besteak beste, Deabru Beltzak taldea ekarriko dugu. Oso talde ona da eta benetan ikuskizun ederra eskainiko dute”,* azpimarratu gura du Arriagak. ^m



«Zipiriñen ume, gaztetxo nahiz helduentzako ekitaldiak egongo dira»



[sopela]jaietan]

Egitaraua

EKAINAK 26 EGUENA

- ▶ Gimnasia erritmiko eta borroka-arteak. Pilotalekuan. 18:30
- ▶ *Un día gris* film laburraren emanaldia. Pilotalekuan. 22:30
- ▶ Kontzertua Gatibu taldeagaz. Udaletxeko plazan. 23:00

EKAINAK 27 BARIKUA

- ▶ Txu-txu tren. 11:00-14:00 eta 17:00-19:30
- ▶ Umeentzako jolas parkea. Zipiriñe eskolan. 11:00-14:00 eta 18:00-20:30
- ▶ Koadrilla jaitsiera. 18:30
- ▶ Pregoia Ugeragaren eskutik. Udaletxean. 19:00
- ▶ Kale Antzerkia Maimur Teatro taldearen eskutik. Udaletxe inguruetan. 20:00
- ▶ Gazteentzako diskoteka. Zipiriñen. 22:00
- ▶ Herriko taldeen kontzertua: *Sniper, Sacrum, Zurkaitz eta Zuldar*. Udaletxeko plazan. 22:00
- ▶ Suzko zezena. Udaletxeko plazan. 00:00
- ▶ Erromeria Trailerako 6 taldeagaz. Udaletxeko plazan. 01:30

EKAINAK 28 ZAPATUA

- ▶ Gazte mailako txirrindulari lasterketa. 10:00
- ▶ Aldibereko xake partidak. 11:00
- ▶ Txu-txu tren. 11:00-14:00 eta 17:00-19:30
- ▶ Umeentzako jolas parkea. Zipiriñe eskolan. 11:00-14:00 eta 18:00-20:30
- ▶ Bitsa umeentzat. Zipiriñe eskolan. 12:30
- ▶ Jubilatuentzako bazkaria. Jubilatuen etxean. 14:00
- ▶ Giza-futbolina. Udaletxe ondoko zelaian. 17:00-21:00
- ▶ Koadrilla jaitsiera. 18:30
- ▶ Kale antzerkia Trapu Zaharra tadeagaz. 19:30. Euskaraz.
- ▶ Gariren kontzertua. Udaletxeko plazan. 22:30
- ▶ Camp erromeria eta dantza lehiaketa. Zipiriñe eskolan. 22:30
- ▶ Su artifizialak. Fraidemenditik. 00:00
- ▶ Suzko zezena. Udaletxeko plazan. 00:30
- ▶ Erromeria Sailean taldeagaz. Udaletxeko plazan. 01:00

EKAINAK 29 DOMEKA, SANPEDRO EGUNA

- ▶ Arku-tiroketa lehiaketa. Udaletxe ondoko zelaian. 10:00
- ▶ Makailao lehiaketa. Udaletxe ondoko zelaian. 10:00
- ▶ Meza nagusia. 11:00
- ▶ Schola Cantorum-en eta Uribe-Bazterra musika bandaren kontzertua. Udaletxeko plazan. 12:30
- ▶ Txu-txu tren. 11:00-14:00 eta 17:00-19:30
- ▶ Umeentzako jolas parkea. Zipiriñe eskolan. 11:00-14:00 eta 18:00-20:30
- ▶ Bitsa umeentzat. Zipiriñe eskolan. 12:30
- ▶ Briska txapelketaren finalak. Kultur Etxeko 3. solairuan. 18:00
- ▶ Koadrilla jaitsiera. 18:30
- ▶ Gorriti eta bere animalien ikuskizuna (sokamuturra). Udaletxeko zelaian. 18:45
- ▶ Mariatxiak Zacatecas taldeagaz. Udaletxeko plazan. 21:00
- ▶ Jaien amaiera Deabru Beltzak taldearen Les Tambours de Feu ikuskizunagaz. 22:30

* OHARRA: Espazio arazoak direla eta, ez ditugu ekitaldi guztiak sartu hemen.

LAIKAK Taberna

San Pedro jai zoriontsuak
sopeloztar guztioi!!!!

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

G

galdaretxe
gozodenda

- GETXO
- AREETA
- LEIOA
- ALGORTA
- SOPELA

fotoxabier argazkiak

- ezkontza erreportajeak
- estudio eta argazki industrialak
- errebelatuak ordu betean
- kopia digitalak edozein euskarri ekarrita (CD, diskette, Zip...)

T&F: 94 676 03 09
E-mail: sailtua@terra.es
Doctor Landa, z/b SOPELA

MUGI

FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis
× Esgintzeak
× Bizkarreko Erreuma ×
mina Kiroleko lesioak ×

Loitzun Izaola
Azkona
Fisioterapeuta, 459 kolegiatu zenbakia

Mendieta 2, SOPELA
617 67 45 36

Bertoko euskara aztergai

Iñaki Gaminde ikertzaile ezagunak Berangoko euskararen gaineko liburua idatzi berri du

Urtarrilean hasi zen Iñaki Gaminde bilbotarra Berangoko euskara aztertzen, herriko hainbat euskaldun zaharrakaz egindako elkarrizketen bitartez. Bost hilabete geroago, jasota du lan horren uzta, liburu moduan. Lana ez da uda osterararte argitaratuko, baina guk aurretik Gamindegaz berba egin dugu.

EHUko irakasle honek 21 elkarrizketa egin ditu Berangon. Gainera, aurretik egindako beste 13 berbaldi ere erabili ditu liburua idazteko. Aurtengoei dagokienez, “55 eta 93 urte bitartekoak izan dira, baia egienak 80 urteren bueltan dabilteaz”.

Berriketaldietan, Gamindek lau arloren gaineko informazioa batu du: “Gizakia eta premiak, ingurunea, jarduerak eta hizkuntza bera”. Elkarrizketetatik hainbat ondorio atera du ikerlariak. Alde batetik, Berangoko euskararen alboko berbakera desberdinak nahasten direla: “Leioa eta Erandioko eus-

keraren eraginak indarra deko Sustatza aldean eta... Gero, Sopelako euskeraren ena-gina be badago; alde horretatik esan leike Berangoko euskera Urduliz, Gatika eta Laukizkoa bezalakoa dala”.

Berezitasunak

Berangoko berbakunean berezitasun batzuk topa dituela dio Gamindek: “Maileguak har-tukeran, gaztelaniaz -ir edo -er danean, -idu egiten da. Baia badago bariante bat, Getxon eta Berangon baino agertuten ez dana (ni Berangon oin kargutu naiz), eta da -u ena-bilte: ‘mugu’, ‘segu’ eta holakoak...”. Berba berezi batzuk ere badaude: “‘Desge’ ena-biltzen da, Gatikan ‘balde zabala’ dena esateko, eta bitxia da, Enkarterrietako erdanatik ei datorrelako. Beste berba berezi bat ‘agiaz’ da (‘aies’ inkurritu), zalanitza adierazteko ena-biltzen dana, ‘antza’ bezala. Berba hori Berangon ikisi dot, eta han baino ez dot topa”.



Argazkian, Iñaki Gaminde

Txakurrak bihotzean

Espainiako Pointer Club-eko presidentea den Gabriel Ayestagaz berbetan

Berangon, Getxoko mugatik oso hurbil, daude Gabriel Ayesta zeberiotarraren 15 ehiza-txakurrak. Denak dira pointer arrazakoak, eta ez da harritzekoa, Ayesta da-eta Espainiako Pointer Club-eko presidentea. “Zortzi urte daroadaz eta lehengo hilen egindako elekzinotan beste lau urterako urten dot atzera barritz”, esan digu txakurren maitale handi honek.

Ayesta aspaldi hasi zen ehizan joaten. Apurka-apurka, ehiza-txakurrenganako zaletasuna hazi zitzaion eta, gaur egun, txakurrak gustatzen zaizkio ehiza baino gehiago. “Txakurrangatik ez balitz ez nintzake ehizan joango”. Zaletasun horrek bultzatu zuen, duela 25 urte, txakurrak hezitza. “Dirutza ederra gastaten da”, diosku, “baina noizean behin, kamada dekodanean, baten bat saldu eta pentsu erosteko ataraten dot zeozer”.

Pointer Club-eko presidente izateak



Argazkian, Gabriel Ayesta

bidaia asko egitera behartzen du Ayesta. Urtean behin batzar orokorra egiten dute estatuko edozein hiritan, eta horrez gain bera hiru hilabetero-edo elkartzen da zuzendaritzako hainbat kidegatz. Pointer Club-eko beharren artean, “konkurtoak eta espozinoak antolatutea” dira nagusiak. Ayestak berak ere parte hartzen du horietan, eta arrakasta eduki ohi du jeneralean, dioskunez.

JUBILATUEN ETXE BERRIRAKO IDEIA LEHIAKETA

Berangoko Udaletxeak ideia lehiaketa plazaratu du 2004ko erdi aldera zabalduko den Jubilatuen Etxe berrirako. Horren irabazleak edukiko du, beraz, eraikitze-proiektu berriaren erredakzioa egiteko ardura. Udal iturrietatik adierazi dutenez, lehiaketan kontuan hartuko da proiektuen originaltasuna. Jubilatuen Etxe berria duela gutxi arte Osasun Etxea izan den eraikinean egongo da. Oraingo Jubilatuen Etxea hutsik geratzean, gaur egun Sopelan dagoen Behargintzaren egoitza paratuko dute bertan.

Karabiazpin dago oraingo Jubilatuen Etxea



SATIŠTEGI

C.F.F.E.

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

cianoplan s.a.

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

AENOR

R

Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR

G

Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

20º ANIVERSARIO
URTEURRENA

20UK

UK 21

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria

taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA

[herriak]

ARMINTZA

Etorkizuneko txapelduna ete?



Argazkian, Esteban Gaubeka

Abendutik profesionala den Esteban Gaubeka armintzar palaria arrakastatsu dabil. Oraindik sei hilabate baino ez ditu egin profesional mailan, eta dagoeneko txapelketa bitako finaletara ailegatu da. Baita horietako bat irabazi ere.

Gaubekak 25 urte dauzka, eta Ekonomia ikasketakaz batera dihardu bere lanbide berrian. Azterketetan murgilduta zebilen, hain zuzen ere, elkarriketatxo hau egin genionean. *“Herrian hasi nintzen palan jokatzten”,* kontatu digu, *“hemen beti egon da-eta ohitura palan egiteko”.* Fut-boolean ere ibili zen, nonbait, baina aka-

BARRIKA-GORLIZ

Badatoz jaiak

Udan sartu gara eta herri askotan jaiak ditugu egunotan. Barrikan, esaterako, Sanjuanak ospatuko dira ekainaren 20tik 24ra. Ekitaldien artean, Su Ta Garren kontzertua da nabarmentzekoa: ekainaren 21ean (zapatua), gaueko 10etatik aurrera izango da eibartar taldearen emanaldia. Ezin dira aipatu barrik utzi, gainera, ekainaren 22ko goizean egingo den III. Nekazaritza Azoka

buan frontoian hobeto moldatzen zela konturatu zen, eta hari ekin zion buru-belarri. *“Afizionatuetan nenbilela, ondo nenbilela ikusi zutenean, profesional izateko eskaintzak etorri ziren”.* Lehenengoari uko egin zio Estebanek, duela hiru urte. Iaz, azkenik, baiezkoa eman zuen.

Beharbada apur bat nagusia da profesional modura hasteko, baina berak dioenez, *“beste batzuk zaharrago hasi ziren, eta gero dena inabazi zuten, 40 urtera arte jokatuz gainera”.* Momentuz behintzat, badiurdi pilotalekuetan lorpen bat baino gehiago eskuratzeko bide onean dagoela. ^m

eta San Juan bezperako sutea. Azken honegaz batera, akelarre bat antzeztuko du Deabru Beltzak antzerki taldeak.

Gorlizko Iberre auzoan ere jaiak egingo dituzte Sanpedroetan. Ekainaren 28 eta 29an izango dira jaiotako ekitaldiak. Horien artean, 28ko dantzaldia eta sardinada azpimarra daitezke, arratsaldeko 7:30 eta 8:30etan hurrenez hurren. ^m

Ekainak 20-Uztailak 7

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Ertibil, margolari hasi berriak.** Josu Muruetan. Uztailaren 1etik 12ra.

GETXO

► **Uribe Kosta pro-deficientes psíquicos elkartearen erakusketa.** Erromoko aretoan. Ekainaren 23tik 27ra.

GORLIZ

► **Enrique López Suárezen margolanak.** Udal erakusgelan (José Antonio Agirre plazan). Uztailaren 2tik 10era.

PLENTZIA

► **Ana Ansotegiren margolanak.** Goñi Portalen. Uztailaren 1etik 15era.

URDULIZ

► **Urdulizko Jaiak Andra Mari 2003, kartel erakusketa.** Kultur Etxean. Ekainaren 23tik uztailaren 2ra.
► **Pintura erakusketa (helduen tailerrak).** Kultur Etxean. Uztailaren 4tik 16ra.

IRTEERAK

ERANDIO

► **Jaizkibel mendira irteera.** Ekainak 29, domeka. Atxazpe mendi taldearen eskutik. Izen ematea euren egoitzan (Aldaieta 7, Astrabudua).

PLENTZIA

► **Lekeitioko Nazioarteko Antzerki Jaialdira irteera.** Uztailak 12, zapatua. Irteera 10:00etan, itzulera 20:30etan. Izen ematea ekainaren 23 baino lehenago Goñi Portalen (94 677 55 41).
► **Sanferminetara irteera.** Uztailak 12, zapatua. Irteera 20:00etan, itzulera 8:30etan. Izen ematea uztailaren 7a arte Goñi Portalen (94 677 55 41).
► **Santa Magdalena itsas-erromeriara irteera.** Uztailak 22, martitzena. Irteera 10:00etan, itzulera 20:30etan. Izen ematea uztailaren 16a arte Goñi Portalen (94 677 55 41).

MUSIKA

BARRIKA

► **Km. 80.** *Golfo Norte* tabernan. Ekainak 21, zapatua. 23:00.
► **Su Ta Gar.** Plazan (jaiak). Ekainak 21, zapatua. 22:00.



► BERTSOLARITZA

Amuriza eta Peñagarikano, balkoitik balkoira

Dagoeneko ohitura bihurtzen ari da Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE), Udalaren eta Kultur Etxearen laguntzaz, antolatutako “Balkoitik Balkoira” bertso-desafioa. Aurtongoan, Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikano ospetsuek parte hartuko dute. Bosgarren edizio hau Portu Zaharrean egingo da, aurreko hirurak bezala. Lehenengoa San Nikolas Plazan egin zuten, baina ez zen leku egokia suertatu.

Non: Portu Zaharra • **Noiz:** Ekainak 21, zapatua • **Ordua:** 22:00

GETXO

► **Myöhä+Henri Texier “Azur” Quintet.** Algortako Biotz Alai plazan (jazzaldia). Uztailak 2, eguaztena. 21:30.

► **Groove Station.** Getxo Antzokiko plazan (jazzaldia). Uztailak 2, eguaztena. 19:30.

► **The Next Generation+Nguyen Le “Hendrix Experience”.** Algortako Biotz Alai plazan (jazzaldia). Uztailak 3, eguena. 21:30.

► **Miren Aranburu Ensemble.** Getxo Antzokiko plazan (jazzaldia). Uztailak 3, eguena. 19:30.

► **Solid!+Jean Luc Ponty and his group.** Algortako Biotz Alai plazan (jazzaldia). Uztailak 4, barikua. 21:30.
► **Jordi Berni Trio.** Getxo Antzokiko plazan (jazzaldia). Uztailak 4, barikua. 19:30.

► **Raminiak-Garbowski-Gradziuk Trio+Daniel Humair Trio+Ellery Eskelin.** Algortako Biotz Alai plazan (jazzaldia). Uztailak 5, zapatua. 21:30.

► **L 14, 16.** Getxo Antzokiko plazan (jazzaldia). Uztailak 5, zapatua. 19:30.

► **Manhattan Transfer.** Algortako Biotz Alai plazan (jazzaldia). Uztailak 6, domeka. 21:30.

► **Dead Capo.** Getxo Antzokiko

plazan (jazzaldia). Uztailak 6, domeka. 19:30.

LEIOA

► **Skalariak.** Txosnetan (jaiak). Ekainak 22, domeka. 00:30.

SOPELA

► **Gatibu.** Sopelan (jaiak). Ekainak 26, eguena. 23:00.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Mi gran boda griega.** Goñi

Portalen. Ekainak 20, barikua. 22:00.

► **Felices dieciséis.** Goñi Portalen. Ekainak 27, barikua. 22:00.

BESTERIK

ERANDIO

► **Arriaga auzoko jaiak.** Uztailaren 3tik 6ra.
► **Dantzaldia helduentzat.** Astrabuduako Josu Murueta plazan Uztailak 6, domeka. 18:30-21:30.

GETXO

► **X. Getxotar Dantza Eguna.** Getxo Antzokian. Ekainak 20, barikua. 19:30.
► **X. Getxotar Dantza Eguna.** Getxo Antzokian. Ekainak 21, zapatua. 12:00 eta 19:30.
► **Euskal dantzak.** 19:00etan, kalejira Telletxetik irtenda. 20:00etan, dantzaldia Alangoko plazan. Ekainak 24, martitzena. Agurra dantza taldearen eskutik.

GORLIZ

► **II. Aerobic maratokia.** Iberrebarrin. Ekainak 21, zapatua. 17:00.

PLENTZIA

► **Aste mikologikoa.** Goñi Portalen. Uztailak 7, astelehena: Hitzaldia: Quercus generoko perretxikoak. Hizlaria: Roberto Fernández Sasia. 19:30. Uztailak 8, martitzena: Setas filmaren emanaldia. 12:00 eta 19:00. Uztailak 9, eguaztena: Hitzaldia: Ibilaldi mikologiko bat. Mario Maguregiren eskutik. 19:00. Uztailak 10, eguena: *Los hongos y el hombre* filmaren emanaldia. 12:00 eta 19:00. Uztailak 11, barikua: Hitzaldia: Bakailaoa perretxikoekin. Hizlaria: Aitor Elizegi. 19:00.

SOPELA

► **Pilota partida (profesionalak).** Titín III-Zezeaga vs. Agirre-Lasa. Pilotalekuan. Uztailak 5, zapatua. Ordua zehazteke.

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

1 Kafe Antzokia Bilbo
2 Kafe Antzokia Ondarroa
3 Ondarroako Arrigorri itsas ostatua
4 Algara konpartsa
5 Zaparrada Gaztegunea
6 Ogetan Umegunea
7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak
8 Bakaikuko etxea
9 Bilbo Hiria irrati 96.0 Fm
10 Zenbat Gara aldizkaria
11 Gara argitaletxea

[albuma]



Getxoarte 2003

Ekainaren 6tik 8ra egin zen Getxoarte erakusketa. Han ibili ginen gu ere, kamera eskuan, bertaratutako artista gazteen lanak irudi bitartez zuei hurbiltzeko. Baina ezin guztia hemen sartu, jakina. Interesgarrien iruditu zitzaiguna hartu dugu, Areetako Geltokiko Plazan ipinitako karpara joateko aukerarik eduki ez zenutenok (eta eduki zenutenok ere bai) han erakutsitakoaren zati bat sikan ikus dezazuen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Asturiasen sortu zen eta 42 urtez Katalunian bizi, baina duela hamar urtetik hona, gero eta desatseginago duen Madrilen kaiolatuta dago. “Sei hilabeteko lanaldia egitera etorri nintzen, baina gero gauzak okertu eta hemen geratu behar izan nuen”, hala dio kabia Euskadin egin gura lukeen Antonio Alvarez-Solísek. Ia 74 urte dituela, betiko argitasunez berba egiten segitzen du, idatziz zein ahoz darabilen prosa oparoa erabilia. Euskal Herriarekin erakutsi duen jarrerak Espainia sakoneko komunikabideetako ateak itxi dizkion honetan, gurera zuzentzen du bere jardun profesio-nala, batez ere kazetaritzako hiru generoak eta literatura landu dituen gizon honek.

Korrontearen kontra

Antonio Alvarez-Solís

Testua: **Unai Brea**

—Orain, Deiako zutabea idazteaz gain, tertulietan ibiltzen zara...

—Gauza txiki bat egiten dut Radio Nou-n, Valentzian. Eta Radio Euskadin goizeko hamarretatik hamaiketara egoten naiz. Ez daukat besterik, ate guztiak itxi zizkidatela-ko; Madrilen lanik gabe geratu naiz erabat. —Zergatik?

—Besteak beste, bizimodua gero eta zailago bihurtzen ari zitzaidan, nire pentsamolde politiko eta soziala dela eta. Ez da ahaztu behar bi bider izan naizela senadore izateko hautagaia Kataluniako Partit Comunista ordezkatzuz. Horrek oztoporen bat ipintzen zidan, baina azken baten, gauzak guztiz okertu dizkidana euskal gatazkaren aurrean jarrera jakin bat hartzea izan da.

—Zer dela-eta jarrera hori?

—Klandestinitate garaian, eta gero ere bai,

harreman handia eduki nuen Euskadirekin. Nire alderdiaren eta ezker abertzalearen lotura nire esku zegoen garai batean. Horrek Euskadiko giro politikoan murgilduarazi ninduen, beraren jarraipena egitera bultzatu ninduen eta arazo horren gakoak erakutsi zizkidan, Euskadik baino Madrilek

“Estatuko sistema politikoan, Euskadi eskandalu morala da”

daukan arazoa, bide batez esateko.

—Beraz, ez zinen gustura egongo Madrilgo tertulietan...


—Ez, jakina, horrek akabatu ninduen. Behin-betiko bota ninduten COPEtik eta María Teresa Camposek ere Telecincotik bota ninduen. Berriro ez joateko esan zidaten, eta kitto. Kolaboratu izan dudan irrat

guztietan, eta ia Estatuko guztietan kolaboratu dut (SER, Onda Cero, RNE...), beste horrenbeste gertatu da.

—Eta zergatik dira Madrilgo tertuliak hain uniformeak Euskadiz jardutean?

—Besterik gabe, nik uste dut Euskadi –beti hala definitzen dut– Espainiar Estatuan

indarrean dagoen sistema politikoaren barruan eskandalu morala dela. Tentsio politiko handiz bizi den herria da, guztiz aurkako jarrerak biltzen dituena... Euskadi ez da sartzen, inondik inora, neoliberalismoaren marko horretan, ez dauka pentsamendu bakarraren ezaugarri hori, eta horrek berarenganako gorrotoak pizten



Bizitza osoan kazetaritzan jardun du Alvarez-Solís jaunak

ditu, gerta daitekeen guztiaren sorburua delako nolabait. Euskadik bihar subirotasuna lortuko balu, Espainia eta espainiartasuna zer diren galdetu beharko genioke berriro geure buruari.

—Madrilgo kaletarrek zer uste dute honetaz guztiaz?

—Kaleko herritar arruntek, beste hainbeste kaletakoek bezala, zorabio uneak bizi dituzte, nik uste. Prestige-ren eta gerraren kon-

tura milioi eta erdi madrildar irten zen kalera, eta gero lehengoek berriro lortu dute gehiengo osoa udaletxean. Gertakari bitxia ikus daiteke hor: arlo soziala eta arlo politiko-a banatuta doaz. Politikoak konponbiderik ez daukala ematen du, alderdi biko sistema delako, eta bat bozkatu ezean bestea bozkatzen delako. Aldiz, kalean jendeak hausnartzen duenean, beste helburu batzuk ikusten ditu, baina ez dakite zelan aplikatu

indar hori politikan, eta hala, bizitza politiko-a faxismoz blaitzen da. Dena dela, faxismo sozial handia dagoela uste dut. Ni gazte nintzela, diktadurak albo batera utzita, faxismoa oso bazterreko gertakaria zen, burgesiaren sektore batzuetan baino agertzen ez zena. Orain faxismoa sistemaren muineraino sartuta dago. Beti esaten dut alderdi bakarreko eta kontzientzia-askatasuneko sistematik alderdi askoko eta kontzientzia bakarrekora igaro garela. Faxismoa barneratu du jende askok, askotan eurek jakin gabe ere.

—Zelakoa da zuretzat Madrilen bizitzea?

—Oso gogorra. Sozialki isolatuta sentitzen naiz, eta gainera ezarri didaten zigor ekonomiko-a ere hor dago. Hori oso latza izan da, neukan lanaren %90 kendu didate eta. Horrez gain, arrotz zaidan, gustuko ez dudan eta absurdoa begitantzen zaidan paisaia batek inguratzen nau, eta holan bizitzea ez da samurra.

“Paisaia arrotz batek inguratzen nau Madrilen, eta holan bizitzea ez da samurra”

—Euskadira autoexiliatzeaz pentsatu duzu, lehenago Sastre edo Bergamínek egin zuten bezala?

—Beti esan dut, Bergamínek “askatatutako lurrera hiltzera noa” esan zuenean bezala, ni ere joango nintzatekeela hemendik irteterik baneuka. Baina etxe bat eraikitzea ez da lan erraza, eta are gutxiago egoera injustu honetan. Bitartekoak baneuzka, oraintxe bertan joango nintzateke Euskadira bizitzera, eta uste dut azkenean bertan amaituko dudala, zortea izango dut eta urte apur batzuk baino ez badira ere, hor egongo naiz zenbait askatasunen alde borrokatzen eta eraikuntza politikoan parte hartzen. Izan ere, horretan Euskadi erreferentzia da, paradigma. m



Bazter-bazterrean

Lasai baina urrun. Edo urrun baina lasai, hori norberaren lehentasunen arabera izango da. Herri gehienetan egoten da erdigunetik urruntxo samar dagoen auzoren bat. Batzuetan urrunago, bestetan ez horrenbeste. Batzuetan era guztietako zerbitzuak dauzkate, bestetan bat bera ere ez. Uribe Kostako mota horretako sei auzo aukeratu ditugu, eta bertako bizimodua hobeto ezagutzeko han bizi direnakaz berba egin dugu. Guztiek azpimarratu dute euren bizilekuak ezaugarri ederra daukala: lasaitasuna. Badaude, hala ere, hain erakargarriak ez diren hamaikatxo kontu bazterreko auzoetan.

Testuak: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Kurtze auzoa. Berango.

Pepi gogoan

60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hasieran eraiki zuten, Azkorrirako bidean, Kurtze auzoa. Garai batean taberna bat zegoen bertan, eta duela gutxi arte Pepiren dendatxo ia mitikoak ere zerbitzu ederra eman die auzokoei. Orain, ordea, ez dago ezer, bizitza osoan Kurtzen bizi izan den Eider Urrutia gazteak dioskunez: *“Igartzen da Pepi ez dagoela, zeozer ahaztuz gero, edo beste barik zeozer erosteko gogoia edukiz gero, Eroskiraino bajatu behar dugulako orain. Gainera, Eroski domeketan itxita dago; Pepik egunero zabaltzen zuen”*.

Gainerakoan, Eider pozik bizi da Kurtzen. Oraingoz gurasoakaz bizi da, baina gerora ere bertan jarraitu gura luke. Dena dela, oso zail dauka, *“hemen egingo dituzten etxe berriak lar garesti direlako”*. Eiderren ustez, Kurtze ez dago urrun, *“estazioa bost minutura dago oinez, eta Eroski hamarrera”*, eta aldi berean lasaia da. *“Ni ez nintzateke Berangoko erdigunean biziko, han autoen zarata baino ez dago eta”*. ^m

Eider Urrutia: “Ez nintzateke Berangoko erdigunean biziko, autoen zarata baino ez dago eta”



Sopelmar. Sopela.

Amildegiairen ertzean

1974an hasi ziren eraikitzen, itsasotik metro gutxira dagoen inguru eder batean, Sopelmar urbanizazioa. 400 etxebizitza ditu, azkenak duela oso gutxi amaitutakoak. Dena dela, auzoaren zatirik handiena 1981ean amaitu zuten. Sopelako udal lurraldeetan egon arren, herritik urrun dago: metro geltokiraino kilometro bi daude gutxi gorabehera.

Ulla Biedermann-ek 8 urte daroaz bertan, eta egunero, neguan zein udan, oinez egiten du metrorainoko bidea lanera joateko. Ulla Alemanaiko Bremen hiri handian jaio zen, eta ondoren urte askoan bizi izan da Bilbon. Antzik ez Sopelmarreko giroagaz, beraz. *“Hain zuzen ere hartatik iheska etorri ginen hona”*, diosku, *“zenbait lekutara berahala ailegatu ezin izateak dakartzan oztopoak onartuta”*. Sopelmarren taberna dago, baina gainerakorako kanpora jo behar dute bertakoei. Hori bai, *“erosketa egitean sekula ez zaigu ezer ahazten”*. Garai batean, Sopelmar udan etorten ziren bilbotarrentzako auzoa zen batez ere, baina, Ullak azaldu digunez, *“hori aldatu egin da azken hiruzpalau urteotan. Jendea orain urte osoan bizi da hemen”*. ^m

Ulla Biedermann: “Erosketak egitera goazenean, hemengooi sekula ez zaigu ezer ahazten”





Abanikoa. Plentzia

Lekutan bizi

Marta Espiga eta Fernando Arteaga bilbotarrak dira. Ezkondu eta, etxea erosteko garaian, hiriko zalapartatik ihes egin gura izan zuten. Bete-betea lortu zuten, gainera, 70eko hamarkadaren erdialdean eraikitako Plentziako Abanikoa gure inguruan dagoen auzorik bazterrenekoa delako beharbada. Hiru kilometro daude Plentziako geltokiraino. *“Hemendik ezin da oinez irten”*, dio Martak, *“horregatik kotxe bana daukagu eta baliteke motor bat ere erostea, behin autoetako bat izorratu eta gorriak ikusi genituelako”*. Bestela, ederto daude Abanikoan, *“txorien kantua besterik ez da entzuten eta”*. 435 etxebizitza dauzka Abanikoak oraingoz (gehiago eraikitzen dabilta), eta horientzat denda edo taberna bakar bat ere ez dago. *“Supermerkaturen bat zabaltzeko asmoa ei daukate”*, diosku Martak horren gainean, *“eta autobusa ipintzeko ere bai”*. Garraio publikoa ez da honaino ailegatu oraindik. Martak urte biko seme bat dauka, eta bertara etortean, gai hori ere kontuan hartu zuten: *“Badakigu 16 urte barru edo, semeak lagunakaz joan gura duenean, guretzat enagozpen handia izango dela, baina onartuta geneukan etxea erosi genuen momentutik”*.^m

Marta Espiga: “Hemendik ezin da oinez irten, hiru kilometro daude-eta Plentziako geltokiraino”


Oicosa zuria. Getxo

Muga “psikologikoa”

Oicosa zuria izenez ezagutzen duguna da erreportajetxo honetako auzoen artean bere hiriko erdigunetik hurbilen dagoena. Izan ere, Bilbo-Plentzia errepideak soilik banatzen du taberna, denda eta kutxazain automatikoz betetako Algortatik, baina duela lau urtetik hona bertan bizi den Elena de Agirrek dioskunez, *“errepidearen bestaldeko hori beste mundu bat da. Horixe bera da: errepidearen bestaldea”*.

Oinarrizko gauza askotarako, Oicosako ehunka biztanleek ez dute urrunegi jo behar: bertan dauzkate supermerkatua, ile-apaindegia, harategia, arraindegia... *“Taberna falta da, hori bai, baina tira, asteburuetan hemendik kanpo elkartzen gara lagunekin eta kitto”*. Bestela, aste barruan, Elena eta beraren familia lanerako edo eskolarako baino ez dira irteten auzotik. *“Beharrik ere ez daukagu, hemen oso gustuna egoten da eta. Umeez jolasteko lekua daukate eta hori da niretzat garrantzitsuena”*, dio Elena lasaitasunzaleak, *“urrunago balego, nigatik primeran. Hemen baztertuta sentitzen naiz, bai, baina berbaren zentzu onean, lasaitasun horren bila etorri nintzen eta”*.^m

Elena de Agirre: “Errepidearen bestaldekoa beste mundu bat da. Horixe bera da: errepidearen bestaldea”



Txorierrri. Leioa

Herri bat Leioa gainean

Txorierrri auzoa, edo Lamiakoko begiralekua, Leioako mendatetxo baten gainean dago, Ondizko baselizatik hurbil. Tamainagatik, herritxo bat da ia-ia. Eta ez tamainagatik bakarrik. Kultur etxea, hiru taberna, janari-dendaren bat eta jaiak eta guzti dauzka, baina horrek ez du esan gura bertatik irten barik bizimodua egin daitekeenik, oinarrizko hainbat zerbitzuren faltan dago eta. Natalia Txurruka auzoko biztanleak dioskunez, *“hemen ez dago farmaziarik, ez medikurik, ez arropa dendarik, ez kutxazain automatikorik...”*.

Autoa ezinbestekoa da Txorierrin, eta familia gehienek bina dauzkate. Nataliak berak duela zazpi urte hara bizitzera joanda eskuratu zuen gida-baimena: *“Algortan bizi nintzenean sekula ez zitzaidan bururatuko inoiz gidatuko nuenik”*. Berak ume txikiak dauzka, baina 15 eta 17 urte bitartekoak dauzkatenek arazo ederra daukate, era honetako auzo guztietan bezala. Hiru irtenbide daude: motorra erosi, taxia ordaindu edo taxistarena egin. Laugarrena *“Lamiakotik honako 208 eskailerak igotzea”* ei da. Zeozergatik da txorien herria.^m

Natalia Txurruka (eskuinean): “Algortan bizi nintzenean sekula ez zitzaidan bururatuko inoiz gida-baimena aterako nuenik”

Goierri. Barrika

Ogia eta egunkaria etxera

Gutxi gorabehera 23 urte dauzkate Goierriko ehundik gora apartamentuek, Barrikako udaletxeko iturriek adierazi digutenez. Horietako batean bizi da Saioa Brea duela ia hiru urte: *“Bakarrik bizi naizenez, apartamentua erosi gura nuen. Sopelan ere bazeuden, baina hemengoak askoz merkeagoak ziren, beraz...”*. Kasu honetan lasaitasun nahia ez da eragile nagusia izan, dirua baizik, baina Saioak aitortu digunez, *“gustatzen zait hemengo lasaitasuna eta, autoa daukadanez, ez daukat aparteko arazorik”*. Goierrikoak Sopela edo Plentziara joaten dira enkarguak egitera, auzoan ez daukatelako ez dendarik ez inongo zerbitzurik, eta Barrikak berak ere ez duela aukera handirik eskaintzen, estankoa ez bada.

Autobusa albotik pasatzen da orduro, baina ez da nahikoa. *“Autorik ez daukan jende zahar asko bizi da hemen, eta horrek harritzen nau”*, dio Saioak. Dena dela, merkatarien ekimenak buruhauste bat baino gehiago konpondu du: *“Badaude ogia eta egunkaria etxera eroateko zebitzua eskaintzen duten enpresak; sarritan topatzen dut horien propaganda postontzian”*.^m

Saioa Brea: “Autorik ez daukan agure-atso asko bizi da hemen, eta horrek harritu egiten nau”





Une a proposean

Argazkiak: **Antonio López**

KASKABELTZ HANDIA (PARUS MAJOR)



BUZTANTENTE (CERCOTRICHAS GALACTOTES)



TXANTXANGORRIA (ERITHACUS RUBECULA)



KULISKA ZURI (TRINGA NEBULARIA)

Antonio López

48 urteko bilbotar honek urte mordotxo daroa Getxon. Hainbat zaletasun dauzka, eta horietako bi (fotografia eta natura) era batera asetzen ditu astebururo, mugimenduan dauden piztiei erretratu eginda. Betidanik gustatu zaizkio animaliak, eta oso gaztetatik hasi zen mendira joaten. Egun batez, duela urte asko, arkatza eta papera utzi eta kamera hartu zuen. Horren emaitzaren zati txiki bat duzue orrialdeotara ekarri duguna.

[fotografia]



KATAGORRIA (ESCIURUS VULGARIS)



PINU-KASKABELTZA (PARUS ATER)



KOARTZA (EGRETTA GARCETTA)



UR-ZOZOA (CINCLUS CINCLUS)




LERTXOINA (ARDEA CINEREA)



MARTIN-TXORI (ALCEDO ATTHIS)

I G E T X O I



I XABIER AMURIZA vs. ANJEL MARI PEÑAGARIKANO I

Eguna: 2003-06-21 (larunbata)
Lekua: Algortako Portu Zaharreko Etxetxu plazan
Ordua: 22:00etan



zineeskola

Oskar Fernández

Erostekotan zer erosi?

Urteak dira egunkariek, bai gure ingurukoek eta bai kanpokoek, tarteka film bildumak eskaintzen dizkietela bezeroei, salmentak handitzeko. Halako bildumak “film onenak”, “film interesgarrienak”, “zinemagintzaren historian sortutako film onenak” erako izenez bataiatzen dituzte, eskaintza bezeroentzat ahalik eta erakargarrien bihurtzeko. Alabaina, eskaintzako filmak hautatzeko erabiltzen dituzten irizpideak komertzialak -eta sarri, pertsonalak- izaten dira, eta beraz, ez dute lotura zuzena filmaren kalitatearekin.

Orduan, halako eskaintza bateko film bat eskuratu bai/ez zalantzan dabilenak nora jo dezake aholku bila? Arruntena litzateke filmaren gaineko erreferentziak bilatzea. Gaur egun nahiko erraz lor daiteke filmen gaineko informazioa, batez ere oso ezagunak badira. Baina filma/k nahiko zaharrak badira, eta bere garaian ere zabalkunde handirik izan ez bazuten, zailagoa izan daiteke aseko gaituen informazioa aurkitzea. Irtenbiderik onena, liburu espezializaturen bat erostea izango genuke orduan: ez dira garestiak izaten, sarri sakeleko argitalpena dira-eta. Zalantzarik gabe, liburuok erabiltzen dituzten irizpideak askoz objektibo eta artistikoagoak izango dira egunkarietako bildumenak baino, liburu hauen egileak beti zinemagintzako adituak izango dira-eta.

Sarri filmaren izenburuari baino ez diogu erreparatzen gure aukera egiteko orduan. Ondo etorriko zaigu, hala ere, gutxienez zuzendaria nor den jakitea. Hari horretatik, ikus dezagun zeintzuk diren zinemagintzak eman dituen zuzendari bikainetako batzuk (jakina, zerrenda hau asko luza genezakeen): Orson Welles, Sergei Eisenstein, Federico Fellini, Charles Chaplin, Ingmar Bergman, Akira kurosawa, Jean Renoir, Stanley Kubrick, Luis Buñuel, Andrei Tarkovski, Luchino Visconti,

Itzultzaile, traidore

Ingelesezko izenburuen itzulpen harrigarriak aurki daitezke gaztelaniazko bertsioetan

Italieratik datorren esamolde batek “*traduttore, traditore (itzultzaile traidore)*” diño; eta orain dakartzagun adibideek arrazoia emango diote esatera horri. Aspaldiko filmetan batez ere gertatu ohi zen joeraz jardungo dugu: ingelesezko pelikulen izenburu gehienek itzulpen “libreegiak” zituzten gaztelaniaz estreinatzen zirenean. Beheko laukian zenbait adibide deigarri daude, baina Stanley Kubrick-ek zuzendu zuen film baten kasua azpimarratu behar da nahitaez; *Dr. Strangelove or how I learned to stop worrying and love the bombs* izenburua horrela itzuli zuten Espainian: *Teléfono rojo, llamando a Moscú*. Eta ez dira bi pelikula desberdinak.

Zergatik jokutzen zuten horrela itzultzaileek? Ez zuten ingelesa menperatzen ala? Zentsura kontua ote zen? “*Ez bata ez bestea. Izenburu horiekin pelikulen inpaktua bilatu nahi zuten eta erakargarriagoak egin ikusleentzat*”, erantzun du zine munduan aditua den Félix Linares-ek. “*Askoz hunkigarriagoa da ‘La legión invencible’ izenburua daukan film bat, ‘She wore a yellow ribbon’ izenburuaren itzulpen literala daukana baino*”.

Gaur egun, itzulpen gutxi

Azken urteotako joera aurkakoa da erabat. Dagoeneko ez dituzte izenburuak asmatzen, hitzez hitzeko itzulpenak egin baizik, edo bere horretan utzi; azken kasu horretako



Billy Wilder-ek zuzendu zuen *Some like it hot* komedia dibertigarriari *Con faldas y a lo loco* izenburua ipini zioten Espainian

adibideak ugariak dira: *Grease*, *Blade Runner*, *Apocalypse now*, *Pretty woman*, *Ghost*, *Trainspotting*, *Mars attacks*, *Scream*, *American beauty*, *Matrix reloaded* ... m

Adibide batzuk

- **High noon** - Solo ante el peligro
- **Butch Cassidy & Sundance Kid** - Dos hombres y un destino
- **Sunset Boulevard** - El crepúsculo de los dioses
- **The Searchers** - Centauros del desierto
- **Home on the hill** - Con él llegó el escándalo
- **The naked jungle** - Cuando ruge la marabunta

Ez galdu > The life of David Gale (Alan Parker)

Film interesgarri honen atzean britainiar zuzendari ezaguna dago: Alan Parker. Gizon honek ia hogeita hamar urte daramatza kameraren atzean. Bere lana gorabeheratsua izan da, baina oso film onak zuzendu dituela esan behar da, inolako zalantzarik gabe: “Gauerdiko tren expressa”, “Mississippi sutan”, “Commitments” eta “Angelaren errautsak”, besteak beste. David Gale-n istorioei zazpigarren arteko egitura emanik, lau haizeetara zabaltzen du heriotza zigorraren aurkako mezua. Film honek duen oinarritzko argumentua Fritz Lang maisu handiak aurretik jorratu zuen “Zalantzaren urrunagoa” filmean. Alan Parker-en film berri honen protagonista, Kevin Spacey, heriotz zigorraren aurkako militante ezagun eta unibertsitateko irakasle dugu, eta duintasun handiz itxarongo du azken erabakia heriotzaren korridorean. Azkenik, filmaren erritmoa eta antzezpen onak aipatu beharra dugu.

Pío Lindegaard-en altxorra

Getxok jazzaren inguruan dagoen Estatu Espainiarreko lehen artxiboa jaso du

Getxoko Jazzaldiaren sorreraren bultzatzaileetako bat izan zen; horretaz gain, jazzarekin zerikusia zeukaten hamaika gauza gorde eta bildu zituen bere bizitza luzean. Orain, Pío Lindergaard zenaren altxor guztiak jazz-zaleen eskura daude Getxoko

«Bere familiak emandako artxiboak 7.000 dokumentu dauzka»

Andrés Isasi udal Musika Eskolan, familiak Udaletxeari eman dio-eta 7.000 dokumentuz osatuta dagoen artxiboa; gainera, musika mota horretan aurrekorik ez dauka: Estatu Espainoleko lehena da.

Artxiboaren arlo erakargarriena soinudun dokumentuak dira: 5.000 baino gehiago daude. Baina testu-agiriak ere ikus daitezke; horien artean, Lindegaard-ek berak idatzitako gogoetak. Idazki horiek erabili ohi zituen zuzentzen zituen irratisaioentzako. Eskutitzak, jazzaren gaineko kartel-bilduma, gonbidapenak eta XX. mendeko musika-estilo hori osatzen duten hainbat zati ere daude artxiboan.

Musika Eskolako liburutegiak lan handia egin du aipatutako guztia sailkatzen eta artxibatzen; halaber, Getxoko webgunean sartu du informazio hori. Bestalde, Cristina Lindegaard-ek Udalak erakutsitako in-



Pío Lindegaard, 1997an jaso zuen omenaldian

teresa eta artxiboari emandako garrantzia biziki eskertu zituen aurkezpenean; bere aitaren ametsa bete eta egia bihurtu dela ere esan zuen Pío Lindegaard-en alabak. m

Lindegaard-ek utzi dizkigunak

- Soinudun fondoak: **5.000**tik gora (binilo, CD eta kasete euskarrietan).
- Argitaratze-fondoak: **2.000** artikulu, eskutitz, kartel, gonbidapen, etab.
- Artxiboaren egoitza: Andrés Isasi Musika Eskola (Areeta). **94 464 60 11**.

Zuzenean >

Manhattan Transfer

Jakingo duzuenez, Manhattan Transfer laukote estatubatuararren ekitaldiagaz amaituko da 2003ko Getxoko Nazioarteko Jazz Jaialdia. 25 urte baino gehiago dirauen ibilbidean, hogei disko-tik gora argitaratu dituzte Manhattan Transfer-ekoek (bide batez esateko, izena eleberri baten izenburutik hartu zuten). Ez daukate estilo zehatza; 1981ean, esaterako, euren disko batek Grammy saria irabazi zuen bai jazz eta bai pop ataletan. Dena dela ere, kalitatea ziurtatuta dago abeslari veterano hauen emanaldian.

Manhattan Transfer
Uztailak 6, 21:30, Biotz Alai plazan (Algorta)

Emanaldia >

Los Cinco Bilbainos

Ekainaren 22an, ohikoa denez, Gorpuzti Eguna ospatuko da Getxon; hain zuzen, Portu Zaharrean egingo dira ekitaldiak. Goizeko mezaren, Biotz-Alai abesbatzaren ekitaldiaren eta sardina-janaren ostean, arratsaldez Los Cinco Bilbainos boskote historikoak Bilboko abesti tipikoak ekarriko dizkigu, 7:30etatik aurrera. Sarrera dohainik izango da.

diskoak

Bizipen gose
Triki Ta Ke
Elkarlanean



Bigarren disko honetan, aurrekoaren ezaugarriez gain, erromerietako eskarmentua eta sentipen sorta aurkituko ditugu; azken batean, bizitzeko ilusioa. Ekoizpen lan finaren ondorioz, doinu biziak, Anabel Arraizaren ahots iradokitzailea, eta trikiaren eta gitarraren arteko "jolasa" entzun daitezke. Dantzan eragiteko diskoa, bizi-poza dariona.

Bidean
Ken Zazpi
Gor



Boskote bizkaitarrak milaka belarri liluratu zituen lehenengo diskoarekin; orain, Eñaut Elorrietaren eztarri ebakia eta "%100 Ken Zazpi" marka daukaten melodiak itzuli dira. Ia 40 minutuan hamaika abesti (hala dira eta) dakarzkigu, edo hamaika erretratu gaur egunari, gehigarririk gabeko rock gardenari beste bultzakada bat emango dion diskoak.

Radio ghetto
Skalariak
Boa



Klub Ska diskoarekin hasitako trilogiaren azken lana plazaratu du talde nafarrak; bertan ska musika da nagusi. Guztira, 13 abesti bildu dituzte disko honetan, gehienak gaztelaniaz, baina badira bi euskaraz; eta alemanierak, italierak, frantsesak eta ingelesak ere badute lekurik.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (I)
Ezer ez da betiko

2003ko ekaina. Bigarren hamabostaldia. Sekulako beroa egiten ari da egunotan. Batzuetan, kaletik noala, asfaltoa erabat urtu eta irentsiko nauen sentsazioa daukat. Gustura aldakuko nuke errepideko grisa harearen horiagatik, baina, oraingoz, hondartzak itxaron beharko du. Azkenaldian, munduaren kontrako norabidean mugitzen naizela iruditzen zait. Memento hauxe berau izan daiteke adibidea. Metroan noa, Virginia Woolf-en *Gela propioa* eskuetan eta soa Bilbora zuzendurik. Nire kalkuluen arabera, hamar bat lagun gehiago egongo dira neure egoera beran. Gainerakoak, hamar lagun horiek eta neu kenduta beste guztiak, momentuz bisitatuko ez dudana toki horretarantz doaz. Beren jantzi koloretsu, irribarre ezaxolati, keinu zalapartarietan antzeman daiteke. Irakurketara itzuli naiz, baina berehala altxatu dut burua. Esku mugimendu txikienaren aurrean hegaka hasten den eulia da giza arreta batzuetan. Kezka gehiegi kontzentrazioa lortzeko. Zenbat min eragin diezaguketen maite ditugun gauzek; zeinen erraz joan daitekeen dena pikutara. Alessandro Bariccoren kristalezko lurraldeak ez daude gugandik urrun. Gaur egungo proiektu asko, Italiar nobelagilearen pertsonaietako batetik eraiki gura zuen hiriaren modukoak dira: ideia aldetik politak, dirdiratsuak, babestu beharrekoak, baina aldi berean, hauskorrak, askotan hiri horietan giza-kiak bizi behar direla ahaztu eta utopietara jotzen baita. Eta utopiak edukitzea ederra da, adimenari erne egoten laguntzen diotelako. Baina aspaldi gainditu genuen surrealismoa. Ezinezkoa dena eskatu baino gehiago, posiblea denarekin konformatzen naiz. Ez da zaila. Oraindik ez dut ilusioa galdu. 4

Cernuda aldarrikatzen

Ibon Zubiaur getxoztarrak Sevillako poetaren obra aztertu du liburu batean

Reichenberger argitaletxe alemaniarrek, Hispanistikaren arloan dabilen ospetsuenetarikoa, kaleratu du *La construcción de la experiencia en la poesía de Luis Cernuda* liburu; egilea Ibon Zubiaur 31 urteko getxoztarra dugu. Psikologia eta piano ikasketak egiteaz gain, Filosofian doktoratu zen Cernudaren inguruko lan horrekin, eta 2002ko martxoaz geroztik Alemaniako Tuebingen hirian bizi da.

“Gaur egungo poetarik handienetarikoa eta nigandik gertuen dagoena da”. Horrela erantzun digu Ibon Zubiaurrek Luis Cernudaz galdetu diogunean. Sevillarra 27ko Belaunaldiaren barruan dago, “nik, berriz, za-

«Kritika ofizialak baztertu zuen arren, eragin handia eduki zuen»

lantzan jarri izan dut beti etiketa hori, nabariak direlako beste belaunaldikideekin zituen desberdintasunak. Errepublikazale eta homosexuala, Cernuda erbestera joan zen 1938an eta inoiz ez zen itzuli Espainiara. Bere poesi-gintza ez da oso ugaria kopuruz; kalitatez, oster, bada aberatsa: “*Zaila da bat aukeratzeari, hala ere, ‘Un río, un amor’ eta ‘Los placeres prohibidos’ bildumetan dauden olerkiak oso ego-kiak izan daitezke jendearentzat*”.

Kritika ofizialak baztertu zuen arren, era-




Argazkia, Ibon Zubiaur

gin erabakigarria eduki zuen 50-60. hamarkadetako poetarik onenengan. Zubiaurrek azaldu digunez, Aznarrek beti aipatzen du Cernuda dela gustukoaren duen olerkaria, “eta hori ulertezina irudiitzen zait”. Cernudarena getxoztarraren lehen liburua da: “*Orain, pare bat argitaletxerekin negoziazioetan nago itzulpen batzuk kaleratzeko*”; bitartean, Alemania, Polonia eta Austrian ateratzen ari dira bere artikuluak. m



liburuak



Literatura eta harrikoa
Inma Errea
Pamiela

Literatura (edo liburuak), emakumeak eta gizonak, eta horien guztien arteko harreman korapilatsu eta aldakorrak. Horien zipriztinez dago bustita, besteak beste, 11 kapitulu dituen saiakera hau.




Katearen begiak
Iñaki Peltarroman
Txalaparta

Historiaz betetako narrazioak biltzen ditu Lasarteko idazleak bere bigarren liburu honetan. Ametsen, maliken eta odolaren koloreak nagusitzen dira narrazioetan, herri honen taupadak ulertzeko aproposak.

Iñaki Saitua > Getxoko Nazioarteko Jazz Jaialdiko arduraduna

“Jaialdiek garrantzi handia izan dute jazz zabaltzeko”



Iñaki Saitua pozik dago urte hauetan maila handiko talde asko etorri direlako Getxoko jazz jaialdira

Iñaki Saitua algortarrak hamar urte daroaz Getxoko Nazioarteko Jazz Jaialdiko arduradun, eta askoz gehiago antolakuntzan zelan edo halan parte hartzen. Ondoko elkarriketan, aurtongo edizioaz (hogeita zazpigarrena dagoeneko, uztailaren 2tik 6ra), Jazzaldiaren historiaz, eta Euskal Herrian jazzak daukan osasunaz berba egin dugu musika mota hori sano maite duen Getxoko Kultur Etxeko langile honegaz.

—Hamar urte daroazu arduran, eta hori bada balantze bat egiteko moduko epea... Eboluzio handia egon da Jazzaldian?

—Bai, nik uste. Handia, eta arlo bat baino gehiagotan. 1986an talde lehiaketa egitea erabaki genuen. Beste aldaketa bat Europako taldeen jazzaldi bihurtzea izan zen, 1989an. Ordura arte, bai Europako jazzlariak, bai beste kontinenteetakoak ere hartzen zuen parte. Eta 1994an, ordu-ra arte Espainiakoentzat soilik zen lehia-

keta, Europa mailakoa bihurtu zen.

—Eta zergatik hori? Europari hainbeste begiratzea, eta Amerikari hain gutxi... —Gure lekuaren bila genbiltzalako. Beti eduki ditugu ondoan Donostia eta Gasteizko jazzaldiak. Bagenekien Europa osoan oso jazz ona egin dela betidanik. Musikari eta talde asko dago, orain ez hainbeste, baina garai hartan gehiago, eta oso zaila zen musikari haiek zuzenean entzutea. Jazzaldietara Amerikako musikariak etorten ziren, ospetsuak batez ere.

Horregatik deliberatu genuen aldaketa hori egitea. Eta pozik gaude, urte hauetan talde asko egon direlako, ezagunak eta ezezagunak, baina maila onekoak. —Hala ere, Manhattan Transfer ekarriko duzue aurten...

—Bai. Nahiz eta europar jazzaldia izan, beti eduki ditugu Europatik kanpoko musikariak. Gainera, jazzean taldeak ez dira finkoak, eta oso arrunta da kontinente des-

«Ez dago aukera handirik jazzaldietatik kanpo»

berdinetakoak elkartzea. Ohitura Europatik kanpoko bat etortea da, ez da zertan Amerikakoa izan behar.

—Badirudi uztaila jazzaren aroa dela, eta gainerakoan ezer ez dagoela...

—Ez dago aukera handirik jazzaldietatik kanpo, egia esan. Guk urtero egiten diogu Pio Lindegard-i omenaldia, eta saiatzen gara beste kontzerturen bat antolatzen. Baina aukera gutxi dago. Jazzaldiek entzule batzuk erakartzen dituzte, urtean zehar diskorik erosiko ez dutenak edo beste kontzertuetara joango ez direnak. —Euskal Herrian jazz entzuten da jazzaldiak daudelako edo jazzaldiak egiten dira zaletasuna dagoelako?

—Nik uste dut jaialdiek garrantzi handia izan dutela jazz zabaltzeko. Gauza biak batera doaz, baina gehiago da jaialdiek jazz zabaldu dutela.

—Badago Euskal Herriko jazz bat?

—Bai, zaletasuna badago, eta taldeak badaude. Egia da musika honetatik bizi ahal izateko jendea irten egiten dela Euskal Herritik, duela hamar urte-edo zen horrela batez ere; orain ez da hainbeste nabaritzen. Duela gutxi, adibidez, Gaztelupeko Hotsak-ek jazz zigilu bat sortu du. m

Gure espezieak > Ipurtatsa



- **Izen generikoa:** Mustela putorius
- **Izen arrunta:** Ipurtatsa
- **Berezitasunak:** 40 cm-ko luzera. Buztana: 20 cm. Pisua: 600-1.500 o. gr.
- **Bizilekua:** Ingurune hezeak, ibaibideetan zein urmaeletan.

Gorputzez luzea eta estua da, ilaia, arre ilun kolorekoa; beltzagoa sabel aldean eta horiskagoa saihetsen aldetik. Ezaugarriak nabariena aurpegia da, muturretik hasi eta begietaraino hedatzen den orban zuri bat duelako. Ingurune hezeak ditu gustoko, ibaibideetan zein urmaeletan egon ohi da, beti ere urbazterretan babesteko landaretza ugari dagoen lekuetan. Egunean zehar, urbazterreko enbor hutsen batean edo harri edo sasiartearen ostendurik egon ohi da, eta iluntzean irteten da. Usaimena eta entzumena oso garatuak ditu eta lurrazpiko galerietan edo urbazterreko sasitza korapilotsuaren artean sartzeko gaitasun handia du. Honela harrapatu eta jaten ditu narraziak, urlehortarrak eta galeria horietan ibiltzen diren mikrougaztun ugari. Harrapakinak gordelekuan biltzeko joera ere badauka. Bestalde, inguratuta dagoenean, kiratsa askatzen du babes moduan.

«Getxoko Bolue aldea da animalia hau ikusteko lekurik bakarrenetakoa»

Oso espezie bakana da eta Getxoko Bolue aldea da animalia hau ikusteko lekurik bakarrenetakoa, hau baitu bizi-inguru egokiena. Noizbait, hatzak eta gorotzak aurkitu dituzte eskualdeko erreken bazterretan, baina datu horiek beti sasiarte eta baso trinkoetan jaso dira; eta zuhaixka-ingurune hauek gero eta urriagoak direnez gero, joera hau aldatzen ez badugu, ipurtatsa laster galduko da gure ingurutetik.

Gaia > Uraren kalitatea

Arrisku ezkutuuak

Ionan Marigómez: “Denbora beharko da Prestige-ren kalteak guztiz ezagutzeko”

Ekainaren 15ean zabaldu zen hondartza-denboraldia, eta uraren kalitatea-ren gaineko eztabaidak bere horretan dirau. Ionan Marigómez erandioztarrarengana jo dugu horretaz berba egiteko. Marigómez EHUKo Biologia Zelularrreko katedraduna da, eta joan den ekainaren 4an “Gure kostako uraren kalitatea” izeneko hitzaldia eman zuen Getxoko Aixerrota institutuan. Horren ostean egon ginen beragaz.

“Inork ez daki nola dagoen ura”, diosku, “ikusten da orbanak ez direla desagertu, eta beraz arrisku potentziala hortxe dago, hori bai. Baina norainoko hondamendia izango den, denborak esango digu”. Prestige-ren ondorioak guztiz ezagutzeko urteak igaro beharko dira EHUKo irakaslearen ustez, “ondorio batzuk zaila delako ikustea, eta beste batzuk ez direlako nabariak izango hainbat urtean”.

Bestalde, datubase baten faltak ez die mesederik egiten azterketei. “Itsasoan urte askoko zikloak daude, eta oso gutxi

dakigu horietaz, epe luzeko ikerketak finantzatzea zaila delako. Beraz, ez dakigu zein den itsasoaren egoera normala, eta ezin dugu jakin orain neurtzen ari garena noraino dagoen normaltasunaren barruan, eta noraino Prestige-ren ondorioa den; ezin dugu ezagutu kaltearen neurri zehatza, ez daukagulako konparatzeko erreferentziarik”. Kontuak kontu, hainbat gauza esan daiteke, baina hartzeak ekar lezakeen arriskuaz esaterako: “Kimikak erakusten digunaren arabera, uraren hidrokarburo maila onargarria da, baina hori toki batetik bestera ezberdina izango da”.



Argazkian, Ionan Marigómez

Sasoia da > udako ekaitzak



Hemen dago uda ostera ere. Eguzkia, beroa, hondartza... eta ekaitzekin batera. Ezagunak ditugu, eta aurten dagoeneko dastatuak ere, udan sortzen diren ekaitzak. Goizetik egun eguzkitsua eta argia dena, arratsaldeko trumoi burrunbak eta euri tanta lodi eta hotzek goibelduta amaitzen da. Zergatik zuritik beltzerainoko aldaketa hau? Egun sargoritsueta nagusi diren haize beroek eta itsasotik datorrenak, elkar topatzean, hodei heze erraldoiak sortzen dituztelako gure buruen gainean. Sorkuntza desatsegina batzuentzat, zoragarria beste batzuentzat; edozelan ere, urtero sasoi honetan azaltzen zaigun fenomeno da dugu.

Txangoa > Gernika-Mundaka

Itsasadarra oinez



Ibilbidea Gernikako tren geltokitik abiatzen da

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

Mundu osoan gerraren aurkako sinbolo bihurtu den herri bat dago Urdaibairen bihotzean. Zergatia aski ezaguna da: alemanek Gernikan egindako bonbardaketa. Esan bezala, sarraski hark munstrokeriaren aurkako sinbolo bihurtu zuen Gernika.

Handik, mendiz inguratutako paraje-an, mareen arabera itsasadar bat dabil gora ta behera kulunkan. Itsasadar hau hareazko padura ederren atzean itsasoratzen da. Mundakako itsasadarraz ari gara, Gernika zeharkatu eta gero, bere ertz bietan oinezkoentzako bide bana dituen. Bideok tren geltokitik abiatzen dira eta uraren ondotik bost kilometroz luzatzen dira.

Ibilbideak Muruetan amaitzen dira,



untzitegiaren alboan, baina ezker aldekoan, trenbidean metro batzuk aurrera egiten badugu, errepideko espaloia har dezakegu. Hortik ur ondora itzuliko gara, eta Mundakaraino heldu ere, nahi izanez gero.

«Bost kilometroko bide ederra Urdaibain barrena»



Zelan heldu hara

- Gernikako tren geltokiaren ondoan zubi bat dago. Handik itsadarraren alde banatatik doazen espalo bi abiatzen dira. Espalo hauek laster pista bihurtzen dira.

Mendi kirolak >

Raftinga

- **Non:** Gállego, Noguera-Pallaresa, Alto Ebro.
- **Noiz:** Udaberria eta uda.
- **Materiala:** Neopreno jantzia, kaskoa, salbamendu-jaka.

Udaberriko beroak mendietako elurra urtzen du, eta horrek erreken emariaren igoera dakar. Adrenalina zer den jakin gura dutenek orain dute aukera, hau baita sasoirik onena raftinga egiteko. Errekak urez gainezka daude, eta ur-lasterrek eta ibai-zurrunbiloek zirrara bermatzen dute; hori bai, ura nahiko hotz dago

Raftinga edota baltsan egindako erreka jaitsiera, kirol “extreme” horietakoa da; zirrara handia, abilezia eta abentura uztartzen ditu-eta. Bi hitzetan esanda, neumatiko-txalupa baten gainean erreketan behera jaistea da raftinga, neopreno jantziaren babestuta (hotzik ez pasatzeko) eta arrau-nei eraginez bultzatuta. Sei-zortzi pertsona bitartean joan ohi dira baltsan, eta beraz, taldean egiteko jarduera polita dugu. Ez ahaztu salbamendu-jaka eramatea eta uger egiten jakitea ezinbestekoak direla.

«Adrenalina zer den jakiteko kirola da raftinga»

Zailtasun mailaketa bat erabiltzen da jaitsiera bakoitzak eskatzen duen abilezia eta ausardia neurtzeko, erreka guztiek eta urteko sasoi guztiek ez dute-eta zailtasun bera. Mailaketa hori, uraren emariaren, haren bizitasunaren, ibai-zurrunbiloen eta abarren arabera izaten da; honela, pertsona bakoitzaren mailaren arabera ibilbidea aukeratzeko aukera dago.

Ez da kirol arriskutsua, beti ere monitortrebatu baten gidaritzapean baldin bagoaz, eta uretara jaustean, lasaitasuna mantentzen badugu. Aldi berean, talde lana eskatzen duen kirola da.

Raftinga gozatzeko aukera ematen duten errekek asko dira; bai Euskal Herrian eta baita Pirineo aldean ere (Gállego, Noguera-Pallaresa, Alto Ebro). Horrez gain, ibilaldia prestatzeko hainbat aukera daude, aipatutako ingurutara hurbilduz eta inguruko herrietako abentura enpresetara jota, bidai agentzien bidez, edota Uribe Kostan bertan dauden eta horrelako eskaintzak egiten dituzten abentura enpresen bitartez.



Gogoa>

Istripuaren ostean

Ana Artetxe DYako psikologoa

Egunero, hedabideek auto istripuen berri ematen digute, gertaturiko kalte material eta pertsonalak aipatuz. Heriotzaz gain, istripuek era askotako elbarritasunak sortzen dituzte, ekonomia eta gizarte arloetarako zama handia dakartenak. Ondorio fisikoei, gainera, psikologikoak gehitu behar zaizkie.

Pertsona batzuentzat auto istripua edukiteak beren bizitza epe bitan banatzea bezalakoa da: lehenagokoa eta gerokoa. Sentipen horrek ez dauka lotura zuzenik gertaeraren larritasunarekin; batzuetan ez dugu kalte fisikorik pairatzen, baina zaila suertatzen zaigu geure eguneroko bizimodua lehengoratzeari. Istripuak, arina izanda ere, hauskor sentiarazten gaitu. Beste batzuetan gure segurtasuna kolokan ikusten dugu, guk geuk edo gure hurbilekoek jasandako kalteak direla eta.

Honelako egoeretan normaltzat jotzen diren erreakzioak (azterketa fisikoa gainditu ostean beti ere) honakoak dira:

- Fisikoak:** zorabioa, nekea, giharretako tentsioa, dardara, arnasa hartzeko zailtasuna eta buruko mina.
- Kognitiboak:** arreta emateko arazoak eta oroimen-arazoak.
- Emozionalak:** haserrea, errua, tristura, beldurra eta antsietatea.
- Norberaren jarrerarenak:** lo-arazoak, elikadura-arazoak, autoisolamendua eta gehiegizko isiltasuna.

Agertzen direnean sintoma hauei kasurik ez egitea eta kroniko bihurtzen uztea arazoa izan daiteke, gaitz psikologiko larriagoetarako bidea izan daitezke eta.

Gorputza >

Ahoko osasunaz

Arantza Etxebarría dentista

Aho osasunaren esparruan, bi arazo nagusi daude gure gizartean: txantxarra eta oiaren gaixotasuna.

Txantxarra, gripearean ondoren, gehien agertzen den gaixotasuna da, eta gazte askok hortz-haginak galtzen dituzte horren eraginagatik. Ahoan dauzkagun bakteriek, txistua eta janari-hondakinekin batera, mintz eranskor bat eratzen dute. Mintz horrek “plaka” du izena eta oso sendo itsasten da hortz-haginetan.

Plakako azidoek esmaltea desegiten dute eta hala agertzen da txantxarra. Plaka ez bada ondo kentzen, gatz mineralak (kaltzioa eta abar) batzen zaizkio eta kalkulua agertzen da. Bai plakak eta bai kalkulook oia sumintzen dute eta horrek eragiten du gingibitisa.

Zerbait jan eta 20 minutura hasten da pilatzen plaka. Jakien artean, hauek dira txantxarra sorrarazten dutenak: azukreak eta almidoiak (ez da garrantzitsua horien kopurua, denbora eta maiztasuna baizik); jaki itsaskorrak (gozokiak, adibidez) eta mamurtzen direnak. Aipatutako horiek dira arriskutsuenak.


Bai txantxarra, bai gingibitisa ere, beste faktore batzueen menpe daude:

Txarto kontrolatua dagoen diabetesa, haurdunaldia, gaixotasun orokorrak, tabakoa (eragilerik garrantzitsuenetakoa da),

protesiak eta ortodontzia-aparatuak.

Ahoa garbi izatea da bide bakarra txantxarra, gingibitisa eta priodontitisa (piorrea) ager ez daitezen lortzeko, eta gainera neurririk egokiena da halitosia (arnasatsa) ez agertzeko ere. Horrez gain, kontuan hartu behar da ahoaren garbitasuna oso garrantzitsua dela beste gaixotasun batzuk saihesteko: artrosia, artritisa, bihotzeko gaixotasunak... m

«Plaka, zeozer jan eta hoge minutura hasten da hortz-haginetan pilatzen»



Ehundaka abarketa pilatzen dira Julia Learraren dendaren apaletan

Abarketak

Udarako oinetakoak

Gure inguruan garai batean asko erabili ohi ziren abarketak **oraindik ez dira hil**

1918an sortu zen Julia Learraren dendak xarmagarria beti egon da Algortako Juan Bautista Zabala kalean. *Julita* duela 23 urte hil zen, baina egun bere ondorengoak dabilta: Inés Gómezurrekoetxea loba eta María Martínez. Orain –lehen bezala– jostailuak, kamisetak, oroigarriak, zahatoak, oi-halak eta mozorroak daude dendan sakabanatuta. *"Beti saldu dugu Euskal Herriarekin zerikusia daukan guztia. Horregatik lehen 'El Corte Vasco' deitzen ziguten!"*, azaldu digu Inés-ek.

«Oinetako fresko, ekologiko eta erosoak da abarketa»

Baina Julia Learraren dendaren betiko ezaugarria abarketa edo espartinak dira. Durangotik ekartzen dituzte, eta garai batean nonahi ikusten ziren Al-

gortan uda partean, *"oinetako fresko, ekologiko eta erosoak direlako"*. Espartzuz eta ehunez eginda daude; *"zenbaitek goma ere daukate zolan, gehiago irauteko, baina zenbat eta goma gehiago eroan, gutxiago transpiratzen dute oinetako hauek"*, dio Inés Gómez-ek.

Baita neguan ere Betikoak urdinak eta beltzak izan arren, kolore guztietakoak aurki daitezke dendaren apaletan. Erabiltzaileak 40 urtetik gorako gizonak eta dantzariak dira batez ere. *"Bitxia da, baina lehen udan bakarrik erabili ohi ziren abarketak; orain, ordea, ez ditugu inoiz kentzen dendatik, neguan ere saltzen dira-eta etxean egoteko"*. Sasoi hobeagoak ezagutu ditu, baina bizitza luzea dauka oraindik; zokoratua egon arren, *"abarketa ez da hain errez hiltzen"*, Julia Learrakoek dioten bezala. m

I aki Bitxitegia Ω OMEGA AGENTZIA OFIZIALA Villamonte T: 4302345 Algorta

A

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa


SUKALDEETAN ADITUAK GARA

Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO


GIZONENTZA - KO MODA


Telletxe 5 ALGORTA T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10 T: 4910821 ALGORTA

HARTU TXANDA


INMOBILIARIA

Basagoiti, 55 behe T.: 94 460 09 62 / 66 Faxa: 94 460 0966 48990 ALGORTA eginkor@euskalnet.net www.inmoeginkor.com

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA Arantza Etxebarria


Odontologia orokorra Ortodontzia Periodontzia PADI

Bidebarri 27, behea es ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga


HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxes: 94 460 06 21 Andikoetxe 2, behea ezkerre ALGORTA

Gonzalo Iribarnegaray

idazle eta bidaiari getxoztarraren eskutik

“Un mes en Bostwana”



Eskatu zure liburudendan!

BILBO MICRO





“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213


[sarean]

Aska itzazu liburuak

Webgune bati esker erraza da liburuak ezezagunekin trukatzea

Denok dauzkagu hainbat liburu etxeko apaletan, beti eskura, baina gutxitan gertatzen da liburu bera birritan esku-tan hartzea irakurtzeko. Beraz, zertara-ko nahi ditugu hor? Webgune batek, Bookcrossing.com, sistema ederra jarri du abian: zuk liburua hartu, webgune horretatik jaitsi daitekeen pegatina bat itsatsi eta leku publiko batean "ahazten" duzu (berdin dio non: zineman, metro-an, taberna batean...). Gauza da "aurkitzaileak", liburua irakurri ostean, berriro ere jarriko duela abian modu berean, kate honekin kultura gero eta gehiago hedatzeko.

Bizkaian 21 liburu bidaiari jarri dira mugimenduan. Webgunean bertan ikus daiteke non utzi dituzten. Beraz, irakur-



www.bookcrossing.com

leok bi aukera ditugu: geure liburuak bidaiari bihurtu edonon utziz, edo beste-ek utzitako liburuak ehizatzerira irten. Zergatik ez biak egin? ^m

webgida

IRUDIAK

>www.wallpapers.org


Ordenadoreak ez dute tresna aspergarriak izan beharrik. Irudi alai eta jostariz apain daitezke. Webgune honetan milaka marrazki eta argazkiren artean aukera dezakezu gustokoen duzuna.

ZER OTE DA MATRIX?

> www.whatisthematrix.com

Lehenengo Matrix hura ulertu bazenuen ere, bigarren honetatik ziur tutik ere ulertu gabe irten zarela zinematik. Baina ez zaitzez kezkatu: Matrix guztiz multimedia da, eta ulertzen laguntzeko, hor dituzu filmak, film laburrak, ordenadore jokuak, eta nola ez, Matrix webgunea, nahi duzunean arakatzeko. 15 hizkuntzatan dago web hau (euskaraz ez, ordea), ezustekoz beteriko ehundaka orrialdek

Sarean aurkitu dugu > Kirolarien estualdiak



Internet-en irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hamabostero argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

Historia > irrati difusioaren hastapenak

Guillermo Marconi

Jakintsuak **1901**ean Atlantikoa zeharkatu zituzten **lehen transmisioak** egin zituen

Heinrich Hertz-ek, 1887an, uhin elektromagnetikoak sortu eta jasotzeko aukera bazegoela aurkitu zuen. Uhin hauek airean hedatzen ziren argiaren abiaduran. Ondoren, Guillermo Marconik beste xede bat bilatu zuen: gizakiek, euren artean distantzia luzean komunikatzea lortzea inolako kablaren beharrik gabe. Eta 1895eko uztailaren 13an, helburu hura lortu zuen, uhin-hertziarren bidez seinale bat transmititzea lortu baitzuen. 1901ean, berriz,

«Fisikako Nobel saria ere jaso zuen, 1909an»

ozeano atlantikoa zeharkatzen zituzten transmizioak egin zituen. Dagoeneko, berriak 300.000 kilometro segundura transmititzen ziren. Baina Italian ez zuten haren aurkikuntzan sinistu eta Inglaterrara alde egin zuen. Bertan, 1897an, Wireless Telegraph and Signal Company Ltd. sortu zuen. Han eskuratu zuen kable-rik gabeko telegrafiaren lehenengo paten-tea. Ondoren, behar hura hobetzen ibili zen eta 1914an, Morse seinaleak ez ezik,



Guillermo Marconi

soinuak eta berbak transmititzea lortu zuen. Irrati-telegrafiatic, irrati-telefoniara-ko jauzia izan zen hura. Industria berria sortu zen orduan: irrati-emisoreena. Hala ere, aurrerapena garrantzitsua izanik ere, 20. hamarkadako lehenengo irrati-trans-misioa eta irrati-aparatuen kalitatea eta konplexutasuna, ez dago gaur egungo ba-liabide anitzekin alderatzerik. ^m

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

[komunikazioa]

Entzun >

Lauretan Babel

Esther Aizpuruak zuzentzen eta Susana Mujikak aurkezten duten magazine hau Euskadi Irratian entzun daiteke 1999ko urriaren 4az geroztik. Arratsaldero hiru orduz, elkarrizketak, erreportajeak eta solasaldiak eskaintzen ditu irratsaio honek. Nagore Telleria eta Lore Unanue lankideez gain, kolaboratzaileak dauzka hainbat arloren inguruan berba egiteko: zientzia, autoak, moda, medikuntza eta musika. Halaber, hiru lagunez osaturiko berriketaldiak egoten dira astean bitan; astean behin, berriz, pertsonaia ezagun bat eroaten dute gertutik ezagutu ahal izateko. Nazioarteko albisteak ere ezagutarazten dituzte, Paris, Londres, New York eta Danimarkan dauzkaten berriemaileen bidez. *Lauretan Babel* lanegunetan ematen da, lauretatik zazpiak arte.

Irakurri > Ostiela!



Ordiziatik dator gustatu ala ez gustatu inor axolagabe uzten ez duen *Ostiela!* aldizkaria. 1995ean kaleratu zuten lehen zenbakia (399 pezetatan saltzen zuten), eta ordudanik denetariko gaiak landu dituzte estilo berezian. Euren web orrian diotenez, “euskal kultur (?) aldizkaria da *Ostiela!*, hiruhilabetekaria, merkea bezain aberatsa, satirikoa baino zerbait gehiago, umoretsua eta serioa, bitxikeriazalea, irudi on, grafiko eder eta letra ugariren maitalea...”, eta askoz gauza gehiago beharbada.

Harremanetarako: 943 16 18 35

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

ALBE alerik ale

Onena emateko du oraindik

Andere Arriolabengoa > Aramaioko ukitu berezia

Testua: Josu Arroyo / Argazkia: Asier Mentxaka

Araba aldetik etorri zen fitxaketa, ondo merezia du bertsolari dotorearen etiketa. Anderek gaztetasuna, bertsotarako dohainak eta kanturako gogoa ditu alde, eta hari entzuteko gogoz, bertsozale asko begira-begira gaude.

—Nola sartu zen Andere bertso eskolen gurpilean?
—Aramaioko bertso eskolan kasualitatez hasi nintzen. Bost hasi ginen eskolan, denak koadrila berekoak. Gero serio hiruk jarraitu genuen. Hasi eta hilabete batzuetara, urria eta maiatza bitartean, Arabako eskolarteko txapelketan hartu genuen parte. Eskolako hirurok aurkeztu, eta bi heldu ginen finalera. Araban ez dago maila handirik, baina hala ere ez da marka txarra!
—Eta nolakoa izan zen Algortako eskolarako jauzia?

Unibertsitatean nenbilen, arratsalde, eta ezin nintzen Arrasatera, bertako eskolara, joan. Manex Agirre lehengusuak, bertsolaria bera ere, esan zidan Algortan bazela bertso eskola bat. Unibertsitateko taldean Miren Loizaga ezagutu nuen, eta hasieran harreman handirik izan ez arren, gero haren eskutik animatu nintzen, orain dela hiru bat urte.
—Zein alde dago Aramaioko eskolaren eta Algortakoaren artean?
—Aramaion hiru bakarrik ginen. Oso gutxi ginen, baina bertsotan egiteko aukera handiagoa zen. Gehienbat, hasiera-hasieratik, txapelketei begira aritzen ginen. Algortako eskolan egoera guztiz desberdina da. Eskolak historia luzea dauka, eta egun ere jende asko dabil. Afari eta bazkarietara-



"Bertso eskolan hasi eta hilabete batzuetara, eskolarteko txapelketan hartu nuen parte"

ko deitu izan didate, bertsotan egiteko, baina kanpotik etorria naizen aldetik, jende gutxi ezagutzen nau, eta lotsagatik, edo errespetuagatik, ez dakit, baina ez naiz asko animatu.
—Zer-nolako esperientzia izan da Arabako txapelketakoa?
—Behartuta nago Arabako Txapelketan parte hartzera. Bertsolari gutxi daude Araban, eta gabiltzanok ezin diogu horri uko egin. Kontua mailatxoa ematea da, eta horretarako ere landu egin behar da. Arrasate aldean ibil nintzen apur bat lantzen, eta egia esan, lasai samar ekin nion txapelketari. Bastidan izan zen kanporake-

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Andere Arriolabengoa Bengoa.
- ▶ 1982an jaioa, Gasteizen.
- ▶ Beti bizi izan da Aramaion.
- ▶ Oinarrizko ikasketak, Aramaioko eskolan.
- ▶ Batxilergoa, Arrasateko institutuan.
- ▶ Zuzenbide ikasketak egiten ari da Deustun.

HIRU LERROAN

Uda datorrela!

Bertsojartzailea: Andere Arriolabengoa / Doinua: Batetikan korroska...

1

Poztasunez hartu dut
uda hasiera,
adierazten baitu
kurtso amaiera.
Ospatu San Juaneko
suen itzalera,
liburu ta apunte
guztiak batera,
dantzatu bitartean
denak erretzera!

2

Udan izaten dugu
eguzkia lagun,
ilargipean zenbat
juerga bota dugun.
Ai, eukiko bagenu
juerga aina maitasun!
Uda osoa dugu
aurretik, ta jardun;
sasoian gaude eta
gozatu dezagun!

3

Uda amaitzen dugu
lepoak erreta,
ta kontu korrontea
tristuraz beteta;
zerbait egingo gendun
agian tarteka,
bete zazu lehenago
jarritako meta,
ondoren damutzea
alferrik da eta!

“Arabako txapelketan gustura ibili naiz, baina oraindik asko daukat lantzeko”

ta, Arabar Errioxan, eta nahiko saio txukuna irten zen. Neure buruarekin nahiko kritikoa izaten naiz, baina egun horretan behintzat bertsoak hasi eta amaitu egin nituen, aparteko nerbiorik gabe. Aurrera egin genuen, baina gero, finalurrekoan, Legution, hasieratik urduriago egon nintzen. Ez neukan inolako presiorik, baina ez nintzen horren gustura ibili.
—Eta aurrera begira, txapelketetan jarraitzeko asmorik bai?
—Arabaren bertan egongo banintz, igual bai. Saioak egiten dira, institutuetan adibidez, baina aste barruan egiten dira horrelakoak, eta nik ez daukat joaterik. Bestela, Arrasate aldean kantatzen dut batzuetan, eta Aramaion jaietako pregoia bertsotan eginda nago. Baina txapelketarako askoz gehiago landu beharko nuke.

—Algortako eskolak antolatutako saioetan, denetarik egin izan duzu. Zein da Andereren balantzea?
—Bai, batez ere gaztetxoei begira egindako saioetan, han izan gara, laguntzeko prest. Baina oraindik gaztea naiz, eta nik argi daukat orain, batez ere, kantatu gura dudala. Bertsotan egiteak asko laguntzen du norberaren kezka alde batera uzteko, eta lehen esan dudan mailatxo hori hartuta, kantatzeko nahi hori barru-barruan izaten da!

Azterketa egun batean erdi bahitu egin genuen Andere, baina elkarriketa pozik onartu zuen, eta Zuzenbide kontuak bazterrean lagata, bide zuzenetik abiatu ginen. Uda ere hasteko dagoela eta, hari begira hiru bertso utzi zizkigun Aramaioko neskek, denok apur bat anima gaitezen... m

BERTSOAGENDA

Txapel bete bertso

Ekainak 20. 20:30etan, *Sopelako Laia tabernan*. Bertsolariak: Joanes Igeregi, Unai Angulo, Oihana Bartra eta Miren Ibarluzea.
Ekainak 21. 20:00etan, *Zubilleta auzoan*. Bertsolariak: Ekaitz Larrazabal, Xabier Paia eta Etxahun Lekue.

Balkoitik balkoira

Ekainak 21. 22:00etan, *Portu Zaharrean*. Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikano.


Jose Luis Iturregi

Oraingoan Berangora hurbildu gara, bertokoa den Jose Luis Iturregigaz berba egiteko. Beharra, soloa, egungo bizimodua eta antzinako kontuak gustora erabili doguz bere etxeko ataripean berbetan. Hurrengo lerroetan, horietako batzuk ezagutzeko aukera izango dugu.

Testua: **Urtzi Iglesias** / Erretratua: **Asier Mentxaka**

—Berangokoa zara, ezta?
—Bai., hemen yaio nintzen ta hemen bizi garez. Guresok bere bai, aitek ta duztik. Mille ta bederatzirehun hogetabien yaio nintzen. Larogei urte eindde ta larogeita batgarrenan; urte asko.
—Zetan egin zendun behar?
—Beharren, ferrocarrillen, berrogeita lau urte pasau. Hamabost urteaz hasi nintzen, hamasei barik, ta hirurogei arten; hemen linien, oin metro da. Len hori itten zan, Bilboti Plentzire... baie ni Santanderren sartu nintzen, han ofizio hobeto ikesten zala eta; ordun makinek eoten ziren hor, lokomotorak, ta han sartu nintzen, baia domekatan behar iten gendun, guardik eta... ta gure aiteri ezakon gustaten. Bilbotik Santanderreko linie eta Bilboti Plentzire zan konpañia bata, eta gero separa in ziren, bueno ni ona etorrite osten. Oin kanbiata dau, Gobierno Vascok deko koxite ha ferrocarril vasco; Atxuritik Donostire ta Bermeora, oin dana da bata.

—Zer behar egiten zenuen?
—Ajustadore eon gintzezen bost aprendize, ezta? Ta ni nazela fuertena... ta errementari ya ixen zan zarra. Baie atxifien eziren jubilaten, harik eta ahal deuen arten eoten ziren beharren. Ta eseusten, koiusten enkargaduk eta jefek: “Bueno, zu zara hemen mutilletan, gaztetan, fuertena, ta guzu yon errementari ikesten?” “Ikisten badozu, horrek dekon kategori emongotzu” Jefe de equipo ixen zan. Ta anima in nintzen, ta zerbitzure yon baio lelau hiru urte eon nintzen. Gero zerbitzutik etor nintzenen ya ezan egon, ba hil ein zan errementari zana. Ta beste batzuk,



Erretratuan, Jose Luis Iturregi

ayudante ixenekok, ta beste batek ahal deun modun eiteneuesen zerak beharrak. Ta niri imini eusten bestekaz. Baia gero pasa eustan niri, bularrati, katarro fuerte bat koiute... ta esausten: “Zuri ez datzu komeni hori beharra” eta han tornun imini eustan praktikaten. Ta gero han

“Seme-alaba bi dekuz ta zapatuten etorten dires, ta beti eroten dabes piperrak edo... deuna solon”

hobeto eon nintzen ze errementari beharra gogorra da. Gero han jubila nintzen.
—Eta handik etxean behar egiten, ezta?
—Etzen bere. Hau (emaztea) bendejera yoten zan Algortara, plazan eukiteun puestoa bendeje saltzeko. Oin kendu ein

deure plaza, ze ifior ez doa saltzen bendeje. Arrastiko zazpietan etorten nintzen, ordu adelantaten zan oingo modun, ta hamarrak arten egune da.
—Eta orain?
—Ba, entretenidu apur bet: solon apur bet, ukullun, horrek arbolak ebagi... Niri

ez dat gustaten taberna, txikiteo hori ambiente, ifnoz ez naz ibili. Oin bizi gare ondo, bai. Oin hor deku solo zati bet, etzerako ta umentzako. Seme-alaba bi dekuz ta zapatuten etorten direz, ta beti eroten dabes piperrak edo... deuna solon. m

Gurberbaker23

ZELAN ESAN

Berba emoteko eta tratu egiteko

Testua: **Xabi Bilbao**

BERBE EMOTEKO ZER ESAN

- Hau **nik ingot** (egingo dot).
- Hau **nik ingot**, **fálta** barik.
- Nire **kónture** itxi hau.
- Berbe **émoten** dotzut hau **nik ingotela**.

Adibidek

—*Ondo ibilli! Eta ez ahaztu géitute helduten zárenen!*
—*Ez, lasai egon, bertara heldu eta géitukotsut.*

—*Ordun nik erósikot okele, Andonik ensaladerako jénero, eta zuk póstre.*
—*Eta ardau?*
—*Ardau itxizue nire kónture. Néuk ékarkot ardau nahie.*
—*Ez ahaztu gero e?*
—*Ez, lasai, fálta barik. Eztot áhaztuko.*

—*Horrek gurpillek ezteko itxura onik. Bestalá autobusen bágoaz...!*
—*Sartu autora lasai. Problemarik bádau, néuk ímingot béste gurpille.*
—*Zuk ímingozule? Zeozer pasa ezkéron matrákakaz hasiko zara zu...!*
—*Ixilik záuz eta sartu auto barrure! Berbe émoten dotzut néuk ingotela!*
—*Berbe? Eztakit ba.*

TRATU EGITEKO ZER ESAN

- Zuk hau **ítén badozu**, **nik** béste ingot.
- Zuk **ízu** (egizu) hau eta **nik** hori béste ingot.
- Zer **deritzozu?** **Konforme?**
- Bai, ondo. **Konforme. Ederto!** / Ez, holan ez. **Pentsa bérez.**

Adibidek

—*Zuk máhaie bátuten bádozu eta nik garbituko doaz platérak eta.*
—*Ederto, conforme!*

—*Beti gabiltzez honéaz itxúreaz! Sásoi da itxúre apur bet kanbíateko!*
—*Hólan da! Goázen barberiré! Zúok ebagízuez hórrek zápak eta gero guk arrakáda bátzuk ímingo duz suurren eta betóndotan. Zer deritzozue?*
—*Májo! Hólantxe ingo du! Goazen lehenbaxelen, birriten pentsa baiño léhelau.*

GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxareriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Sarrerak debalde!



Kafe Antzokiak ekainean antolatu dituen ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu. UKra deitzen duten pertsonen artean bina sarrera zozketatuko dira

20 ostirala:

ERREFUXIATUEN NAZIOARTEKO EGUNA.

SEIDU (Sierra Leona) & BARRAKISSA (Boli Kostako Ballet

Nazionalako Dantzari4 sarrera, 22:00

27 ostirala:

CARLOS VARELA (Nov sima Troba Cubana4 sarrera,

deitu
94 491 13 37

uk
orain
hamabostean
behin
aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu
94 491 13 37

Euskara ikasi dute

Lorena Mata (Sopela)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?
—Eskolan hasi nintzen eta institutuan jarraitu nuen, orain dela lau urte Erromoko euskaltegian hasi nintzen berriz.
—Zein mailatan zaude?
—Zazpigarren mailan nago.
—Non ikasten duzu?
—Aurten Sopelako Udal Euskaltegian; Erromoko euskaltegian hasi eta utzi nuenean hiru urte pasa ziren eta hona etorri nintzen.
—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—Oposaketan puntuak ateratzeak eta etorkizunean EGA ateratzeak.
—Zer da gehien kostatzen zaizuna?
—Entzumenarekin nahiko ondo moldatzen naiz, baina hitz egiterako orduan asko kostatzen zait.
—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?
—Bai, nire mutil laguna euskaldun zaharra da eta berarekin erabiltzen dut, hala ere, etxean ez dakite euskaraz eta horregatik oso gutxi erabiltzen dut.
—Zelan definituko zenuke euskara?
—Gaur egun lan egiterako orduan beharrezkoa da, gero eta gehiago eskatzen dutelako. m

Ibilaldia 2004 Leioan
Ekainaren 1ean aurkeztu zuten guraso eta irakasleen aurrean

Hil honen amaieran Euskal Herri osorako egingo den aurkezpenaren atariko moduan edo, ekainaren 1ean Ibilaldia 2004 aurkeztu zitzaizen "etxekoei". Dakizuenetz, datorren urtean Leioan izango da Bizkaiko ikastolen jaia, Betiko eta Ander Deuna ikastolek antolatua. Bietako langile eta gurasoen aurrean egin zen lehenengo aurkezpentxo, bide batez “elkar eza-

«Alkarregaz heldu izango da 2004ko Ibilaldiaren leloa»

gutzen hasteko”, Xabier Ugalde Ander Deunako zuzendariak esan zigunez. Ugalde berak eta Koldo Tellitu Betiko-ko presidentek azaldu zituzten Ibilaldiaren leloa eta helburua Betikon egin-dako ekitaldian. Aurretik, ikastola bietako dozenaka lagunek Ibilaldiaren ibilbidearen ia zazpi kilometroak egin zituzten oinez. Ekitaldixoa ikastetxe bietako ikasle izan den Beñat Vidal gaztearen bertsoakaz hasi zen. Ostean, Ugaldek hartu zuen hitza: “Alkarregaz heldu’ da 2004ko Ibilaldiaren leloa. Alkarregaz aritzea ikastolen ezaugarrietako bat da, eta Ibilaldi hau ere

alkarregaz egingo dugu. Elkarlan horren beharra azpimarratu gura dugu”. Tellituk, berriz, eurek antolatuko duten Ibilaldiaren helburu nagusiak aipatu zituen: eskualdean ikastolen lana eza-



Argazkian, Koldo Tellitu eta Xabier Ugalde

gutaraztea eta ikastolen hezkuntza eredua zabaltzea, alegia. “Ikastolen zeregina eskolak euskaraz ematea baino gehiago da”, esan zuen, “hezkuntza euskalduna eman gura diegu ikasleei, euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konpromisoa hartuta. Euskal kurrikuluma lantzen dugu, eta lan horretan eskualdeko bakarrak gara”. m

Euskara Biziberritzeko Getxoko Plana abian

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua beharrenan ibili da azken hilabeteotan Euskara Biziberritzeko Getxokon Plan Nagusia prestatzen. Orain dela pare bat aste aurkeztu zuten 2003-2006 epealdia hartuko duen plana; gainera, horren zirriborroa eman zaie herriko eragile batzuri, eta udal web orrian ere paratu dute. Internet-en bidez ikusi gura duten herritarrek aukera izango dute, bide batez, euren ekarpenak egiteko. Planaren helburu garrantzitsuena euskaraz bizi gura duten herritarrei horretarako aukerak ematea da, beharrezkoak suerta daitezkeen hizkuntz-politikako neurriak bultzatuz. Euskarak lekua berreskura dezan –bai arlo ofizialean, bai pertsonalean eta bai sozialean– sortu da plan berri hau. Berau prestatzeko, Udaleko Euskara Zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin elkarlanean aritu da. / Argibideak: 94 491 14 41

Uribe Kostako Euskara Zebitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 489 01 40 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74



Euskaldunagoa?
Oso zaila dago.

Independenteagoa?
Ez da erraza.

Pluralagoa?
Zein bezain plurala?

Hobea?
Hoberena zen.

baina
hobetuko
dugu
zure laguntzarekin

berria berri

Akzioei buruzko informazioa:
www.ektsa.net
Tf: 635 733 385 · 635 733 386



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Binagreta

udarako oinarritzko saltsa

Seguru asko, egin daitekeen saltsarik errazena da hau. Hasteko ondo txikitu barazki guztiak, hau da, kipuleta, piper berdea eta tomatea. Azken hau aldez aurretik zuritzea komenigarria da. Horretarako bada trikimailu eza-gun bat: ur berotan sartu segundu batzuz, gero azala erraz kendu ahal izango dugu. Esan bezala, barazki guztiak ondo txikitu eta gero, pipermin zuria, gatza, Jerezko ospina, Dijongo mostaza eta oliba olioa gehitu, eta barilla batekin dana ondo nahastu saltsa apur bat loditu arte. Kitto!

Binagreta batek, esparragoak, porru egosiak (potetan erosi daitezkeenak), Tuterako kogoiloak edota atun lata soil bat alaituko dizu. ^m

osagaiak

kipuleta • piper berdea • tomatea • pipermin zuria
oliba olioa • Jerezko ospina • gatza • Dijongo mostaza



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardoa edateko

temperaturak

«Temperaturak eragin handia dauka ardoa edateko orduan; ardoaren ezaugarriak ere alda ditzake»

• Ardo zuri eta lehorrak
8°-10°tan edan behar dira. Zenbat eta temperatura altuagoa, gehiago igarriko dugu alkohola; temperatura baxuagoetan, garraztasuna.

• Ardo zuri gozoak
6°tan gutxi gorabehera edan; temperatura honetan, espresio gozoa eta frutazkoa nabarmentzen da.

• Ardo gorriak
9° eta 12° bitartean, beltzetik ala zuritik, zeinetik hurren dauden begiratuta.

• Ardo beltz arin eta gazteak
12° eta 16° bitartean euren aroma eta egitura nabarmentzeko.

• Ardo beltz gorpuzdunak
14° eta 17° bitartean euren gorputza hobeto igartzeko.

• Ardo beltz zaharrak
17° eta 18° bitartean, horrela euren bouqueta eta espresioa hobeto antzemango ditugu.

Kankamo

pintxo taberna berria Algortan



Argazkian, Gartzen Uriarte

Algortan ezaguna zen oso Isidro taberna. Hura aspaldian itxi zuten eta geroztik itxita ikusi ditugu areto horren ateak. Baina hilabete bitik hona, taberna berria dugu bertan, Kankamo kafe-tegi eta taberna, alegia. Leku txukuna da eta tratua ere halakoa eskaintzen du. Gartzen Uriarte jabea aurkituko dugu barra atzean beharrean; sukaldari lanean, ostera, Miren Mentxakatorre. Azken honi sor dizkiogu bertan aurki daitezkeen pintxo eta taulatxoak. Gura beste pintxo hartzeko aukera izango du-

gu: tortilla ugari, mota askotako sandwichak, perretxiko-pintxoak, entsaladilla-pintxoa, otarteko txikitxuak... Tauletan berriz, iberikoak, atuna olioan, antxoak, behi-zezina eta abarren artean aukera egin dezakegu. Asteakabuetan, etxeko berezitasuna den pintxoa prestatzen du Mirenek, Kankamo pintxoa du izena eta pernil-kroketaz, raba batez eta ganba batez dago eginda. Algortako erdialdean mokadu gozo bat hartzeko aukera ederra eskaintzen du, beraz, Kankamok. ^m

Asador



¥ Egunero zabalik

¥ Eguneroko menuak

¥ Enpresa menuak

¥ Menuak norberaren gustura

¥ Egunero karta berezia

¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera

¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea
adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen
Bilbo-Plentzia errepidea
Ellexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Jurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Jateko
• urdaitegia
• frutadenda
• elikagaiak
Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen

deitu: 94 491 13 37



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Bikotekide barik bazaude, ez larritu, heltzeko zorian dago eta. Baikorra izan, zoria eta zortea zure alde daude. Baliteke momentu honetan lana oso bizigarria ez izatea. Zure dietan bitaminak sartu beharko zenituzke osasuna egonkortzeko.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Besteei laguntzen emango duzu denbora eta horrek ondo sentiaraziko zaitu. Argi ibili, inbertsio ausartegiak egingo dituzu beharbada. Agian zure merituak aitortuko dizkizute eta eskupeko bat edo soldamina-igoera emango dizute. Ondo etorriko zaizu soinketa ariketa gehiago egitea.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Lagun min batekin eztabaidan sartzeko arriskua duzu. Diru faltan zabilta, horregatik gerrikoa estutu behar duzu apurtxo bat. Ez hartu laneko oztopoak zure kontra joango balira bezala. Orain baztertu osasungarria ez den ohitura hori, berandu baino lehen.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Bikotekiderik eduki arren, amodio platoniko bat zeure zain duzu. Gastuei muga jarri behar diezu edo bestela ez zara hil honen amaierara iritsiko. Lanean bultzada asko eta ekimen onak edukiko dituzu. Gogo-aldartea ezin hobea.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Jendearekin haserre ibili nahi ez baduzu mundutik apur bat baztertzea izango da onena. Dirua aurreztuta eduki arren, ez du merezi buru gabe erabiltzea. Lanean aurrerapauso handiak emango dituzu, zure ahaleginei esker. Zure osasunaren onerako, lo gehiago egin.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zure familiaren eta lagunen babesa bilatzeko ordua iritsi da. Diru arloan sekulako arrakasta edukiko duzu. Gogora ezazu igoera batean lagunduko dizuten lankide bikainak dituzula. Lan egunetan ez ibili gauzez iriteten.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Amodioaz eta sexuaz tabu eta aurreritzi barik gozatzeko egun bikainak datoz. Zuhurra izan diruari dagozkion gaietan. Zure laneko adiskideak zaindu itzazu, etorkizunean beharko dituzu eta. Bitaminak hartzea komeni zaizu.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Bikotekidearekin eta lagunekin dituzun harremanak apartak izango dira. Ez da diru kontuak konpontzeko sasoirik onena. Dena den, ez duzu inongo arazorik izango zure lanean. Ariketa fisiko gutxiegi egiten duzu eta horrek zeure urdaila suntsitu dezake.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zure aisialdia bai bikotekidearekin eta bai maite duzun jendearekin pasatu. Garai zailak diru arloko erabakietarako. Gainera zure lanak kemena eta benetako borondatea eskatuko dizkizu. Gorputza gehiegi behartzen ari zara eta lehenago edo beranduego ordaina eskatuko dizu.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Iraganeko hankasartzeek zure bizitza aldrebesten jarraituko dute. Sinatzen duzunarekin ez bazara zuhurragoa, diru nahikoa galtzeko arriskua izango duzu. Zure nagusiek aintzat hartuko dituzte zure ahalegina eta ardura. Aldarte onez ibilikiko zara.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Zalantzak eta beldurrak aholkulari txarrak dira maitasun kontuetan. Pentsa epe luze-ko irabazietan eta ez ukitu kontu korrontea. Datozen egunak nahiko zalapartatsuak izango dira lanean. Zure burua osasuntsu ikusiko duzu, batez ere atseburuan.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Harreman egonkorra baduzu, momentu erromantikoak ederrak izango dituzu. Gogoan erabili zer egiten duzun diruarekin eta zuhurtasunez jokatu. Ekimen onetan arituko zara lanean, buru argiaz gainera. Benetako premiekin bat datorren dieta egin.



mungia


oKINDegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]



denborapasa

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamabi beltzune ditu.

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Zabalpen. 2. Aditzera emanak. 3. Zuk naramazu eta haiek... . Bat. 4. Bibliako lehen emakumea. Antzinako kalkulu-taula. 5. Tontor. Gela handi eta zabal. 6. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Bi ken bat. Zero. (Zah.) Zakur. 7. Merkataria. 8. Pertsiaiko enperadorea. (Infin.) Ukitu. Iodoaren sinbolo kimikoa. 9. Kasik. Random Acces Memory. Atzizkia. 10. Erne! Inguru.

Goitik behera

1. Udal hautetsia. 2. Euskal lurraldea. Saudi Arabiako hiriburua. 3. Nafarroako herria, Larraunen. Oxigenoa. 4. Ofizial turkiarra. Heldu naiz. 5. Tibeteko apez budista. Hizki grekoa. Euskal alderdi politikoa. 6. Arrain mota. Aldizkari hau. 7. Urteko sasoiak. Röntgen. 8. Haiei, nukle. Lituaniako hiriburua. 9. Da. Iparraldean, mesedez. Indioa. 10. Eguzki. Oraindik.

Soluzioak

O	N	V	A	R	B	A	B	I	D	V
N	I	G	M	A	R	A	I	A	I	A
I	K	U	K	O	R	I	Z			
V	I	V	L	U	T	V	T			
R	O	O	T	A	V	O				
O	T	E	R	A	N	I	A	G		
K	O	A	B	A	V	A	B	E		
I	E	A	T	A	M	A	R	A	V	N
K	A	K	I	A	G	A	R	A	I	R
N	D	E	U	K	A	L	A	B	V	Z



EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN

Luma
BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behe. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Gabirian jaiotako kazetari eta aurkezlea da.
- Urte askotan eguraldi-gizona izan zen telebistan.
- Oso hurbileko albisteak ematen ditu saio baterano batean.

> Aurrekoaren erantzuna: Kontxi Odriozola

> Irabazlea: *** Jon Ander Saez (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

Leioaztarrak Algortan, 1976

A ze koadrilla ederra! Leioakoak dira gehienak (Areetako baten bat ere badago), eta Algortako La Ola jatetxean bazkaria antolatu zuten egunean egin zuten erretratu hau, 1976ko irailaren 25ean. Sukaldariari ez zitzaion lanik faltako! Irudia beste jatetxe baten hartu dugu, Leioako Udondo tabernan hain zuzen. Erretratuan ageri direnetako asko oraindik joaten dira hara egunero, kafetxoa hartzera, eta horiei esker lortu dugu irudiko gehienen izenak jakitea. Batzuk falta dira, hala ere. Parkatu, beraz. m

Lehenengo lerroa, zutunik: Eugenio Andikoetxea, Donato Gana, Alfonso Landa, Pedro Mezo, ?, ?, Vicente Galbarriatu (txistuagaz), ñaki Inoriz, ?, José Luis Andikoetxea, José Luis Alzaga, ?, Ignacio Zarraga, Raúl Alvarado, Luis Zarraga.

Bigarren lerroa, zutunik: Salvador Duca, ?, ?, Jesús Ayo, Martín Aresti, ?, Fernando Alustiza, Eugenio López, Máximo Sesumaga (GB), Pedro López (GB), Gabriel Aretxabaleta, ?, ?, Lupino Zarraga (atzean), ?, ?, Juan Kamiruaga (GB), ?, Máximo Llona “Kutxin” (GB), José Luis Jauregizuria.

Hirugarren lerroa, jesarrita-hesiaren kontra: Felipe Sopuerta, Carlos Martínez, Angel Andikoetxea (GB), ?, Félix Azkue (GB), Martín Markaida, Pedro Mª Castillo, ?, Floren Jauregi (GB), Blas Momoitio, ?, José Billalabeitia, Julián Basañez (GB).

Laugarren lerroa, zutunik: Pedro Aretxabaleta, Emilio González “Rama” (GB), José Luis Amorebieta (GB), Jesús Serrano, ?, (?) Txopitea, Juan Azkueta (GB), José Ramón Aretxabaleta, ?, Josemari Jauregi, ?, Ramón Aresti (GB), ?, Sabino San Juan.

Bosgarren lerroa, makurtuta: ?, Martín Gaubeka (GB), Luis Elordui-zapaterietxe, (?) Alava, Juan Ormaetxea, Sabino (?), Angel (?).

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitetz mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

SANTI ANTERO > Txan magoa

“Justizia hitza oso inportantea da niretzat”



ARGAZKI PRESS

Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

A ze problema! Ez dakit hitz batean esaten. Ezin dizkiot neure buruari loreak bota, eta oso kritiko jartzen banaiz, akabo.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Ez naizela konstantea. Boladaka ibiltzen naiz, sortzeko garaian gaupasa egin dezaket edo bi aste egon naiteke lantokitik atera gabe, eta gero hilabate bat etxean sartuta, ezer egin gabe.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Asko ditut, niretzat haurtzarora garai magikoa izan zen eta. Bat aipatzekotan, txikitan atzerritar bat sartu zela nire gurasoen tabernara eta kartekin magia-joko bat egin zuela.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Niri behin ere ez zaizkit gustatu idoloak. Magiaren munduan, mirestu –hala esan badaiteke–, Lance Burton izeneko mago bat miresten dut, Las Vegasen lan egiten duena eta nire izaeraekin guztiz bat datorrena.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Esan baino, adierazi. Bosniako gudua hasi zenean, 92an, aukera izan nuen joateko eta laguntzeko. Ume haiek oso txarto zeuden, eta badakizu zer den dena galdu duen ume batek besarkada bat ematea eta bizitza osorako laguna zaituela esatea?

Zein da zure libururik gogokoena?

Magiari buruz eduki nuen leheha. Duela hogeit urte, sagardotegi batean, afaria amaitu eta beti bezala neure ikuskizuna ematen hasi nintzen. Ikustera hurbildu zenetako batek oparitu zidan.

Eta film bat?

Ez dakit, Europako zinea oro har. Ipar Amerikatik gutxi batzuk salbatzen dira. Zine italiarra asko gustatzen zait.

Zein lelorekin egiten duzu bat?

Leloa ez, baina niretzat justizia hitza oso garrantzitsua da. Justizia eta borondate ona.

Zerk ematen dizu beldurra?

Sufrimenduak. Edozein momentutan txanponak beste aldea erakuts diezazuke.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Lagunek, neskalagunak, alabak... maitasunak. m

TXAN MAGOA— “Proxenetak eta polizia izan ezik”, era guztietako lanbidetan ibili zen Santi Antero 39 urteko donostiarra, duela hamar urte-edo magian profesional modura jarduten hasi aurretik. Askoz lehenagokoa da, ordea, magiagaz daukan harremana. Santi magoa zen hasieran; gero, berak ere ez daki ondo zelan, honezkero Euskal Herri osoan ezagunak diren berba magikoak etorri ziren: Artxila Murtxila eta Txan Handia goitizena. Alaba baten aita da, Urnietan bizi da Donostiako etxebizitzaren prezioei aurre egingo dien magia-trikumailurik ez delako asmatu oraindik, eta dagoeneko Txan hutsa modura ageri zaigu telebistan nahiz oholtzan, Handia dela gogorarazi beharrik ez dagoelako beharbada.

Errenta
Renta
2002

Errenta eta Ondare Aitorpena
Maiatzaren 2tik ekainaren 30era

Gure errentari
esker aurrera
egiten du
Bizkai osoak.

Izan ere, Bizkaiak aurrera egiten duenean, bertako jende guztiak egiten du aurrera. Handiek eta txiek, indartsuek eta indar handirik ez dutenek. Gehien eman behar dutenek eta hartzeko premia handia dutenek. Gainera, gogoan izan Rentanet sistemaren onura guztiak balia ditzakezula. Eta orain nobedade bat ere badago: Rentanet etxean. Horrela aitorpena aurkeztea are errazagoa eta erosoago izango da.

Zeozergaldetu nahi baduzu, deitu telefono honetara: 901 50 3000.
www.bizkaia.net

Bizkai guztiak
egin dezan aurrera

Bizkaiko Foru
Aldundia
Ogasun eta Finantza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Hacienda
y Finanzas

